

4. ERANSKINA: OINARRIZKO IBILBIDEEN ARABERAKO AZTERKETA

AURKIBIDEA

4. ERANSKINA: OINARRIZKO IBILBIDEEN ARABERAKO AZTERKETA

1. EDUKIERA HANDIKO LEHENTASUNEKO SAREA	1
1.1 A-8 KANTAUrialDEKO AUTOBIDEA.....	1
1.2 AP-68 EUSKADITIK ETA ARAGOITIK PASATZEN DEN AUTOBIDEA.....	4
1.3 N-I ERREPIDEA.....	6
1.4 A-15 AUTOBIDEA.....	9
1.5 N-102: VITORIA-GASTEIZTIK N-I ERREPIDERA, MESETARAKO NORABIDEAN	10
1.6 N-637: ERRONTEGIKO KORRIDOREA - BIZKAIA	12
1.7 N-622: VITORIA-GASTEIZ - AP-68REN ELKARGUNEA	14
2. PORTU ETA AIREPORTUETARA IRISTEKO LEHENTASUNEKO SAREA.....	16
2.1 N-624: FORONDAKO AIREPORTUKO SARBIDEA.....	16
2.2 N-638: DONOSTIAKO AIREPORTUKO SARBIDEA	17
2.3 N-633: LOIUKO AIREPORTUKO SARBIDEA	19
2.4 N-639: KANPOKO PORTURAKO SARBIDEA (BILBAO)	21
2.5 N-644: KANPOKO PORTURAKO SARBIDEA (BILBAO)	23
3. LEHENTASUNEKO SAREKO GAINERAKO ZATIA.....	25
3.1 N-240	25
3.2 N-104: VITORIA-GASTEIZTIK N-I ERREPIDERA, FRANTZIARAKO NORABIDEAN	28
3.3 N-124	30
3.4 N-636	32
3.5 N-634	35
3.6 N-121-A	39
3.7 N-629	40

4. ERREPIDE-SARE NAGUSIA.....	42
4.1 A-132.....	42
4.2 A-624.....	44
4.3 A-124.....	47
4.4 A-627 ETA GI-627	49
4.5 BI-625 ETA A-625.....	53
4.6 A-623 ETA BI-623.....	57
4.7 GI-131	61
4.8 GI-631	63
4.9 GI-638 ETA BI-638	65
4.10 BI-604	67
4.11 BI-624	69
4.12 BI-630	71
4.13 BI-631	73
4.14 BI-633	75
4.15 BI-635	78
4.16 BI-636	80
4.17 BI-637	83
5. EAEKO METROPOLI-AREETAKO EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA.....	86
5.1 BILBOKO METROPOLI-AREA.....	86
5.2 DONOSTIAKO METROPOLI-AREA:.....	87
5.3 VITORIA-GASTEIZKO METROPOLI-AREA	88

1. EDUKIERA HANDIKO LEHENTASUNEN SAREA

1.1 A-8 KANTAURIALDEKO AUTOBIDEA


Bizkaia eta Gipuzkoa zeharkatzen ditu, Irun - Behobiatik Kantabriako mugara arte, eta, beraz, EAEko iparraldea zeharkatzen duen oinarritzko komunikazio-ardatza da.

A-8 autobidearen (Kantaurialdeko autobidea) egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztartzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.

A-8 AUTOBIDEKO EBIaren GORABEHERAK. 2003. URTEA




Errepide honetako EBBIa, Frantziako mugan 18.000 ibilgailu baino gehiago izatetik, Donostiainguruan 100.000 ibilgailu baino gehiago izatera pasatzen da. Hiriburua igaro ondoren, EBBIa nabarmen murrizten

da, grafikoan ikus daitekeen bezala. A-8aren erdialdeko guneetan, bi hiriburu eraginik gabe, 20.000 edo 30.000 ibilgailuren inguruan mantentzen da.

Bilbora gerturatzen den heinean, EBBIa nabarmen hazten da berriz, eta eguneko 130.000 ibilgailu izatera iristen da Bilbao Metropoliar; hiriburua pasa ondoren, EBBIa eguneko 45.000 bat mila ibilgailukoa izatera pasatzen da.

IBILGAILU ASTUNEN PORTZENTAJEAK A-8 AUTOBIDEAN. 2003. URTEA



Nabarmentzekoa da errepidearen hasieran, Frantziako mugaren inguruan, ibilgailu astunen zirkulazioa 9.000 ibilgailura artekoa dela ia, beraz, EBBI-mailaren %50a dela ia; gainerako ibilbidean, berriz, ibilgailu astunek ozta-ozta gaintzen dute %20a.

Errepidearen gainerako zatietan ibilgailu astunen EBBIaren gorabeherak EBBI orokorarentzat deskribatu ditugunen antzekoak dira. Hau da, hiriburuen inguruan hazi egiten da: eguneko ia 15.000 ibilgailu astun Donostian eta 13.000 ibilgailu astun eguneko Bilbon. Hiriburuen artean, berriz, eguneko 3.200 eta 4.800 ibilgailu astun artean.

A-8ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
44.538	6.244	14,02%


Iturria: geuk egina

A-8ko batez besteko EBBIa 44.500 ibilgailutik gorakoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %14koa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

A-8 AUTOBIDEKO ZERBITZU-MAILEN GARAPENA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina

A-8 autobideak Donostia metropoliaren eta, batez ere, Bilbao metropoliaren inguruan soilik ditu F mailako zatiak, 110,5 eta 131,0 KPen artean F maila horretara iristen baita. Gune horiez bestalde, zerbitzu-maila D eta A artekoa da ia luzera osoan.

F zerbitzu-mailaren portzentajea, errepidearen luzera osoarekiko, %16koa da; eta D-E-F mailen luzerak batuz gero, %22koa da. Bestalde, A-C mailek %78a osatzen dute.

Segurtasuna

A-8ko IKTak

HASIERAKO KPa	AMAIERAKO KPa	2003ko istripuak
16,9	18,0	5
20,5	21,9	14
113,4	115,1	34
121,4	123,1	84
135,2	137,0	21

Iturria: geuk egina.

A-8 autobidean, bost dira Istripuen Kontzentrazio Tarteak (IKT): bi Gipuzkoan eta hiru Bizkaian.

Gipuzkoako IKTak Donostiaren eta horren saihebidetaren inguruan daude, eta biktimak eragindako 14 eta 5 istripu gertatu ziren horietan, hurrenez hurren, 2003 urtean.

Bizkaiko hiru IKTak, ekialdetik mendebaldera, honako leku hauetan daude: Basaurin, ordainpeko autobidearen sarreraren ondoren; Bilbao metropoliaren, Retuerto eta Barakaldo artean; eta, azkenik, Kantabriako mugatik gertu, Pobeñan.

Nabarmentzekoak dira 2003. urtean Bilbotik gertuen dauden IKTetan gertatutako istripuak, biktimak eragin dituztenak. AP-68 autobidearen sarreraren ondoren dagoen Istripuen Kontzentrazio Tartearen biktimak eragindako 34 istripu gertatu ziren 2003. urtean.

Hurrengo IKTan, Retuerto eta Barakaldo artean, biktimak eragindako istripu kopurua oso altua da: 84, hain zuzen ere.

Eta, azkenik, Pobeña udalerritik gertu dagoen IKTan biktimak eragindako 21 istripu gertatu ziren.

Plataforma

Bai Bizkaian, bai eta Gipuzkoan ere, A-8ko plataformaren zabalerak 9 metroak gainditzen ditu luzeraren zatirik handienean; eta gutxi dira, berriz, 5 eta 9 metro arteko plataforma duten zatiak. Bi lurralde historikoetan, 9 metro baino gehiagoko plataforma duen errepidearen portzentajea %90 baino handiagoa da.

A-8 AUTOBIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-8 esk. (Gipuzkoa)	0	0	1	99
A-8 ezk. (Gipuzkoa)	0	2	7	91
A-8 esk. (Bizkaia)	0	0	8	92
A-8 ezk. (Bizkaia)	0	0	7	93

Iturria: geuk egina.

Erradioak

Plataforma-zabaleren antzera, A-8ko erradioen gehiengoak 300 metroak gainditzen ditu; halere, Gipuzkoan, 250 metro baino gutxiago dituzten erradioen portzentajea %6koa da gutxi gorabehera.

A-8 AUTOBIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-8 esk. (Gipuzkoa)	0,0	0,1	5,8	4,4	89,7
A-8 ezk. (Gipuzkoa)	0,0	0,0	6,6	4,3	89,0
A-8 esk. (Bizkaia)	0,0	0,0	0,3	5,8	93,9
A-8 ezk. (Bizkaia)	0,0	0,0	0,3	6,6	93,2

Iturria: geuk egina.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-8 AUTOBIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERAK

Errepidea	Aurreratzeako aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeako debekua duten tarteen luzera %
A-8 gorako noranzkoan	100,0	0,0
A-8 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

A-8an, bere autobide tipologiari dagokion moduan, aurreratzeak egiteko aukera dago luzeraren %100ean.

Zeharbideak

A-8ak ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

A-8ak ez dauka abiadura-jaitsierak eragiten dituen zatirik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

A-8ak zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

A-8a, Zarautzik Donostiara bitartean, lur-mugimendu handiz, ingurugiro-kalitate gutxiko erdi-mailako guneeetatik igarotzen da, Zarauzko bizitegi-guneetatik gertuko zonetan izan ezik.

Debatik Zarautzera arte, lur-mugimendu handiz, ingurugiro-kalitate gutxi duten erdi-mailako guneeetatik igarotzen da.

Eibartik Debara, zirkulazio handia bideratzen du Egoren haranean (Eibar) eta Debaren haranean barna -bide-zati batzuek ibai horien bideekin bat egiten dute (isurketak gertatzeko eta ibai-bazterretan eragina izateko arriskua)-, bai eta Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko eta Debako bizitegi-guneetatik gertu ere. Mendaro eta Deba artean kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik igarotzen da. Gainera, Mendaro eta Sasiola artean, korridore ekologiko bat zeharkatzen du.

Kantabriako mugatik, El Hoyotik, Ugartera (Barakaldo) bitartean, erdi-mailako ingurugiro-profila duen gune batetik igarotzen da, zirkulazio handia bideratzen du lur-mugimendu handiz. A-8a, Ugartetik (Barakaldo) Galdakaora bitarte, Barakaldoko, Deustoko, Bilboko eta Basuriko bizitegi-guneetatik gertu igarotzen da; zirkulazio handia bideratzen du, erdi-mailako lur-mugimenduak daude, eta ohiko hiri-paisaietan parte hartzen du.

Galdakaotik Amorebieta-Etxanora arte, Galdakaoko, Usansoloko eta Amorebieta-Etxanoko bizitegi-guneetatik gertu igarotzen da; zirkulazio handia bideratzen du, eta erdi-mailako lur-mugimenduak daude. A-8a, Amorebieta-Etxanotik Durangora eta Ermura arte, erdi-mailako ingurugiro-profila duten guneeetatik igarotzen da; trafiko ugari bideratzen du eta erdi-mailako lur-mugimenduak daude. Halere, korridore ekologiko bat zeharkatzen du Euba inguruan (N-634arekin batera doa, hesi-efektu bikoitza eraginez), eta bere azken zatian Beko erreka bidearen ondotik doa.

1.2 AP-68 EUSKADITIK ETA ARAGOITIK PASATZEN DEN AUTOBIDEA


Euskaditik eta Aragoitik pasatzen den autobidea da, eta Bilbao eta Zaragoza arteko ibilbidea egiten du; Errioxako muga Bilbao metropoliarekin lotzen du A-8aren loturan.

Horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Araban, AP-68aren EBBIari buruzko daturik ez dago 2003. urterako. Horregatik, eta luzera osoko EBBIaren gora-beheren berri izateko helburuarekin, jarraian datozen grafikoetako datuak 2002. urtekoak dira.

AP-68 AUTOBIDEKO EBBIaren GORABEHHERAK. 2002. URTEA




Iturria: geuk egina.

AP-68 autobidearen hasieratik (Bilbao metropoliaren inguruan) N-622 eta A-624 errepideekin dituen elkarguneetara arte, Altube udalerriaren parera, 2002. urteko EBBIa eguneko 28.000 ibilgailu eta eguneko 35.000 ibilgailuren artekoa da.

Puntu horretatik aurrera zirkulazioak behera egiten du, eta AP-1 ordainpeko autobidearekin (Burgos – Armiñón) duen elkargunera arte, EBBIa eguneko 14.000 ibilgailukoa da.

Azkenik, AP-1 autobidetik Errioxako mugara arte, EBBIak behera egiten du eguneko 8.000 ibilgailura arte.

IBILGAILU ASTUNEN PORTZENTAJEAK AP-68 AUTOBIDEAN. 2002. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen zirkulazioari dagokionez, ibilgailu guztientzat deskribatutakoaren antzeko portaera dute; aldaketa handirik gabeko portzentajeak mantentzen dira %12 eta %18 inguruan. Autobidearen hasieratik Altube udalerriaren ingurura arte (0 eta 30 KPen artean), ibilgailu astunen EBBIa eguneko 4.000 eta 5.400 ibilgailu astunen artekoa da.

Altubetik Errioxako mugara arte, EBBIak behera egite du eguneko 1.000 eta 2.000 ibilgailu astunera arte.

AP-68ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
17.610	2.614	14,84%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, AP-68ko EBBIa 17.610 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea ia %15ekoa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

AP-68ko ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

Euskaditik eta Aragoitik pasatzen den autobideko zirkulazioa ez da inoiz zerbitzu-maila baxukoa; halere, zerbitzu-maila baxuena Ugao-Miraballes eta Laudio artean dago, eta B zerbitzu-mailakoa da tarte hori.

Segurtasuna

Bide-segurtasunari dagokionez, ibilbide segurua da hau, ez baitago istripu-tasa handia duen punturik; hau da, AP-68 autobide osoan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

AP-68 AUTOBIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
AP-68 esk.	0	0	1	99
AP-68 ezk.	0	0	1	99

Iturria: geuk egina.

Ia AP-68 osoan plataformaren zabalera 9 metrotik gorakoa da.

Erradioak

AP-68 AUTOBIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m)<luzera %
AP-68 esk.	0	0	0	0	100
AP-68 ezk.	0	0	0	0	100

Iturria: geuk egina.

AP-68ko kurbadura-erradio guztiak 300 metrotik gorakoak dira.

Aurreratzeak egiteko aukera

AP-68 AUTOBIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERAK

Errepidea	Aurreratzeako aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeako debekua duten tarteetan luzera %
AP-68 gorako noranzkoan	100,0	0,0
AP-68 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

AP-68an, bere autobide tipologiari dagokion moduan, aurreratzeak egiteko aukera dago luzeraren %100ean.

Zeharbideak

AP-68ak ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

AP-68an ez dago abiadura-jaitsiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

AP-68ak zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

AP-68a, Basauritik Arabako mugara arte, Nerbioi ibaiaren ondotik doa (Astigarragatik Laudio baino lehenagora arte), Arrigorriagako bizitegi-guneetatik gertu. Gorbeia eta Gabeko mendien artetik doan korridore ekologiko bat zeharkatzen du.

Ziorragatik Ametzagako mendebaldera arte, Altubeko haranetik igarotzen da (Altubeko mendatara arte), A-624ren ondotik; bi errepideak ibaiaren ertzetik doaz, eta ingurumen-balio handia duen Gorbeia gunean parte hartzen dute.

Ametzagako mendebaldetik Rivabellosara arte, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik igarotzen da (Ametzagako mendebaldetik Subijana-Morillas arte); hiru bide-zatitan, ingurumen-balio handia duen gune batean sartzen da (Beluntzako ekialdea, Andagoia eta Subijanako igarobidea), eta, bertan, Guibijo – Arkamo – Badaya multzoan parte hartzen du; Andagoiatik Igay bitarte Bayas haranetik doa ibaiarekin eta A-3314 errepidearekin batera; Subijanako igarobidean, eta Pobestik iparraldera, loturako bi korridore ekologiko zeharkatzen ditu.

AP-68a, Rivabellosa eta Errioxako muga artean, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik igarotzen da.


1.3 N-I ERREPIDEA

Madril – Irun N-I errepide zaharrak Araba eta Gipuzkoa zeharkatzen ditu, Miranda de Ebrotik hasi eta Frantziako mugara arte; hain zuzen, Mesetarekin komunikatzeko ibilbide nagusia da (AP-68 errepidearekin batera), bai eta Vitoria-Gasteiz eta Donostia lotzeko bide nagusia ere.

Horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

N-I AUTOBIDEKO EBIaren BILAKAERA. 2003. URTEA




Iturria: geuk egina.

N-I errepideko zirkulazio-maila altuenak Andoain inguruan izaten dira, A-15aren eta GI-131ren loturetatik gertu, Donostiatik hegoaldera; eguneko ia 70.000 ibilgailu izatera iristen da. Donostiako metropoli-area osoan, Orio eta Erreterria artean, errepidea 50.000 ibilgailuren inguruan mantentzen da, eta mugara gerturatu ahala, zifra hori gutxitu egiten da.

Arabatik pasatzen den zatian, EBBIaren maila jaitsi egiten da, izan ere, lurralde historiko osoan 40.000 ibilgailutik behera mantentzen da.

IBILGAILU ASTUNEN PORTZENTAJEAK N-I AUTOBIDEAN. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen portzentajerik altuena Etxegarateko mendatean ematen da, EBBI osoaren %50era iristen baita bertan. Arabako bide-zatian, portzentajeak %30aren inguruan mantentzen dira, eta Gipuzkoan behera egiten dute Etxegarateko mendatetik iparraldera, bertan, %20tik beherako portzentajeak mantentzen dira.

Errepide osoan, Nafarroako muga da eguneko ibilgailu astunen portzentajerik baxuena duen zatia. EBBI-mailarik altuenak errepidea Vitoria-Gasteiztik pasatzen denenean ematen dira, eguneko 12.000 ibilgailu astun gaudituz; Arabako bide-zati osoan eta Donostiatik hegoaldera geratzen den Gipuzkoako bide-zatian 8.000 eta 12.000 ibilgailu artean mantentzen da. Hiri horren eta mugaren artean bolumena txikiagotu egiten da; hain zuzen ere, 2.000 eta 5.000 ibilgailu artean mantentzen da.

Batez beste, 2003an, N-I errepidearen EBBIa 30.000 ibilgailu inguruan kokatzen da, eta ibilgailu astunen portzentajea ia %25ekoa da.

N-I-eko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA


EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
29.842	7.300	24,46%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

N-I-eko ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

N-I errepidean F mailako bide-zati bakarra dago, Lasarte eta Andoaingo iparraldearen artean (447,7 eta 453,7 KPen artean). Horren aurretik dagoen puntua, Tolosa eta Andoain artekoa (444,7 eta 447,7 KPen artean), E mailakoa da; bai eta errepidearen azkeneko bide-zatia ere, hau da, Pasaia eta Irun artekoa (466,3 eta 481,5 KPen artean). Errepidearen gainerako puntuek A eta D arteko zerbitzu-mailak dituzte.

Zirkulazio-arintasunari dagokionez, ibilbideko bide-zatirik hoberena, hau da, A zerbitzu-maila duena, Burgosko mugarekin bat datorrena da (321,7-326,3 KP).

Segurtasuna

N-I errepidean lau IKT daude, hain zuzen ere, honako puntu hauetan:

N-Ieko IKTak

HASIERAKO KPa	AMAIERAKO KPa	2003ko istripuak
327,0	328,0	9
328,1	329,1	20
431,0	432,1	22
463,6	464,5	15

Iturria: geuk egina.

Lehenengo biak Armiñón eta Estavillo arteko bide-zatian daude, Burgosko mugatik hurbil, Araban. Hirugarrena Gipuzkoan dago, Alegian hain zuzen ere; eta azkenekoa Pasaiako udalerrian, hau da, Gipuzkoan baita ere.

Plataforma

N-I errepidearen plataforma 9 metro baino gehiagokoa da ibilbidearen bi heren baino gehiagotan; alabaina, 7 eta 9 metro arteko plataforma duen ibilbidearen portzentaje handia dauka baita ere. 7 metro baino gutxiagoko plataforma duen luzera errepide osoaren %7koa da soilik.

N-I ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-I esk.	1	5	27	67
N-I ezk.	1	6	24	69

Iturria: geuk egina.

Erradioak

N-I ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m)<luzera %
N-I esk.	1	4	10	5	80
N-I ezk.	1	4	10	5	80

Iturria: geuk egina.

N-I errepideko kurbadura-erradioen gehiengoa 350 metrotik gorakoa da; halere, erradio txikiagoen portzentaje batzuk ere aintzat hartzeko modukoak dira, bereziki 190 eta 250 metro artean kokatzen direnak, %10era iristen baitira.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-I ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
N-I gorako noranzkoan	94,3	5,7
N-I beherako noranzkoan	94,4	5,6

Iturria: geuk egina.

N-I errepidearen ibilbidearen %5,6 - %5,7an soilik dago aurreratzea debekatuta, eta zati hori errepidearen amaierako zatiaren inguruan dago, Donostia eta Irun artean.

Zeharbideak

N-I errepideko hiru zeharbideak errepideko bukaerako zatian daude, hain zuzen ere, Donostia, Pasaia eta Irun udalerriei dagozkie. Hiru zeharbide horiek gatazka ugari sortzen dituzte:

N-I ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle- kopurua (2003/1/1)	Gatazka- egoera	Lurralde historikoa
Donostia-San Sebastián	Donostia-San Sebastián	181.811	Handia	Gipuzkoa
Donostia-San Sebastián (Pasai Antxo)	Donostia-San Sebastián (Pasai Antxo)	186.321	Handia	Gipuzkoa
Irun	Irun	57.933	Handia	Gipuzkoa

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsierak

N-I errepidean ez dago abiadura-jaitsiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-I errepidean zirkulazio etena duen bide-zati bat dago bukaera aldera, 466,8 eta 481,5 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

N-I errepideak, Etxegarate eta Idiazabal eta Beasain artean, bi galtzadak bereizita ditu; lur-mugimendu nabarmenak (bai eta zirkulazio ugari ere) daude, eta Aralar mendilerroaren eta Aizkorri mendilerroaren artean lotura ekologikoko gune batetik igarotzen da (korridore ekologikoa). Etxegarate eta Idiazabal artean, N-I lur-mugimendu ugari gune batetik igarotzen da bi galtzadak bereizita, eta oso erakargarria den paisaia batean kokatzen da.

Idiazabal eta Alegia artean zirkulazio handia bideratzen du (eta ibilgailu astunen portzentajea oso handia da gainera zati horretan). Oria ibaiaren bidearekin bat egiten du (Garrantzi Komunitarioko Lekua da Ordiziatik Alegiara) eta kalte-arriskuak daude bertan (isurketak, ibaiertzak); haran-hondoarekin bat egiten du (zati batzuetan dituen bidezubiei eta tunelei esker, trazadura berria irekiagoa da) eta bizitegi-eremuetatik gertu pasatzen da (Idiazabal, Beasain, Ordizia). Gainera, Legorreta eta Alegia artean lotura-korridore bat zeharkatzen du, eta hesi-efektu konplexua egiten du, N-Iaren trazadura zaharrak eta berriak bat egiten baitute.

Alegia eta Anoeta artean, zirkulazio-maila altua dauka, eta Oria ibaiaren ibilbideari jarraitzen dio (ibaiertzetan eraginez); gainera, Tolosako eta Anoetako bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da.

Anoeta eta Lasarte artean ere zirkulazio-maila altua dauka, eta Oria ibaiaren ibilbidearekin batera jarraitzen du (ibaiertzetan eraginez); gainera, Villabonako, Andoaingo eta Lasarteko bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da. Gainera, bide-zati horretan, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik pasatzen da; akuifero horrek Oriaren haranaren sorrerari eusten dio.

Lasartetik Irunera lur-mugimendu ugari daude, eta zirkulazio-maila altuak bideratzen ditu, ibilgailu astunen portzentaje handia dutenak gainera, zarata-eragozpenak sorraraziz eta Donostiako, Pasaiako, Donibaneko, Lezoko, Errenteriako eta Irungo bizitegi-guneetako paisaietan eraginez. Oiartzun eta Irun artean lotura ekologikoko korridore potentzial bat zeharkatzen du (Jazikibel eta Aiako Harriaren artean).

Condado de Treviñoko mugatik N-102 errepidera arte, korridore ekologiko bat zeharkatzen du Treviñoko mugan.

N-102tik N-622ra arte, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa bide-zati osoan, eta Ariñezko bizitegi-guneren baten ondotik pasatzen da.

N-622tik N-240ra arte ere, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa bide-zati osoan, eta Abetxukoko eta Gamarrako bizitegi-guneren baten ondotik pasatzen da.

N-240tik N-104ra arte, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa Zurbanoko iparraldera arte; gainerakoa erdi-mailako ingurugiro-kalitatea duen gune batetik doa.

Arbulotik Nafarroako mugara arte erdi-mailako ingurugiro-kalitateko gune batetik doa, eta loturako korridore ekologiko bat zeharkatzen du Mezkia inguruan, eta beste bat Egino inguruan.

Treviñoko mugatik Rivabellosara arte, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa, eta Zadorra ibaiaren ondotik doa Treviñotik Armiñóngo hegualdera arte.

1.4 A-15 AUTOBIDEA

Autobide honek Irurtzun eta Aduna lotzen ditu, eta, beraz, Nafarroako muga N-I errepidearekin lotzen du Aduna udalerraren inguruan.

Errepide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

A-15 autobidean neurketa-gune bakarra dago, 147,8 KPan hain zuzen ere; bertan jasotako datuen arabera, EBBIa 13.248 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %27koa da, hau da, 3.577 ibilgailu astun.

A-15eko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
13.248	3.577	27,00%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan A zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

Datuak aztertuz gero, bide-segurtasunaren ikuspegitik, bide segurua dela esan daiteke, ez baitago inolako IKTriki.

Plataforma

A-15 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-15 esk.	0	1	12	88
A-15 ezk.	0	5	44	51

Iturria: geuk egina.

A-15 errepideko plataforma-zabalerak, ia luzera osoan, 7 metrotik gorakoak dira; eta, gainera, gehienak 9 metrotik gorakoak ere badira.

Erradioak

A-15 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m)<luzera %
A-15 esk.	0	0	2	9	89
A-15 ezk.	0	0	2	7	91

Iturria: geuk egina.

Era berean, kurbadura-erradioen gehiengoa 350 metrotik gorakoa da, eta ez dago bat bera ere 190 metro baino gutxiago dituenik.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-15 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeako aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeako debekua duten tarteetan luzera %
A-15 gorako noranzkoan	100,0	0,0
A-15 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

A-15 errepidearen luzeraren %100ean dago aurreratzeak egiteko aukera.

Zeharbideak

A-15ak ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

A-15ean ez dago abiadura-jaitsiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

A-15ak zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

A-15 errepidea lur-mugimendu ugariko eremu batetik doa, eta, beraz, zenbait tunel eta bidezubi ditu; mendiko paisaia batean kokatzen da, hau da, ingurumen-balio handiko eremu batean (bide-zati ugari tunelean, baina badu azaleko bide-zatirik), eta lotura ekologikoko bi korridore potentzial zeharkatzen ditu (tunel handien bitartez).

1.5 N-102: VITORIA-GASTEIZTIK N-I ERREPIDERA, MESETARAKO NORABIDEAN

N-I eta Vitoria-Gasteiz lotzen ditu, eta Mesetatik datozen ibilgailuek hiriburu horretara sartzeko erabiltzen duten bide nagusia da.

N-102 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

N-102 errepideak neurketa-gune bakarra dauka 345 KPan, Gometxatik gertu; bertan, eguneko 15.239 ibilgailuko EBBIa dauka. Ibilgailu astunen portzentajea %6,63koa da, hau da, 1.010 ibilgailu astun eguneko.

N-102ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
15.239	1.010	6,63%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan A zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

N-102 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m) >luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) <luzera %
N-102	0	1	4	94

Iturria: geuk egina.

Ia errepide osoan plataformaren zabalera 9 metrotik gorakoa da.

Erradioak

N-102 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) >luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) <luzera %
N-102	10	17	4	4	66

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienak, gutxi gorabehera bi herenek hain zuzen ere, 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak badituzte ere, nabarmentzekoa da errepidearen portzentaje handi batek 85 metrotik beherako erradioak dituela.

Hori errepide osoaren %10 da. Beraz, hurrengo tarteko erradioak batuz gero, errepidearen %27an 190 metrotik beherako erradioak daudela ikus daiteke.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-102 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
N-102 gorako noranzkoan	100,0	0,0
N-102 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

N-102 errepidearen luzeraren %100ean dago aurreratzeak egiteko aukera.

Zeharbideak

N-102ak ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

N-102an ez dago abiadura-jaitsierarik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-102k zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

Vitoria-Gasteizera sartzeko errepide hau batez ere hiri-inguruko, industrial eta hirikoa den ingurune batetik pasatzen da (Ariñez, Gometxa, VitoriaGasteiz), eta bizitegi-guneetan eragina izan dezake. Plataformaren erdia, ekialderago dagoena, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa.


1.6 N-637: ERRONTEGIKO KORRIDOREA - BIZKAIA

N-637 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.


N-637ko EBBIaren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Errepide honetako EBBIa 8,7 KPa, Barakaldo inguruan, 132.000 ibilgailu baino gehiagokoa da; Bolue – Kurtxes inguruan, berriz, hau da, Bilbao metropolitik urrutien dagoen zonan, 17.846 ibilgailura arte jaisten da. Enekuritik aurrera, BI-604ren bidegurutzean, EBBIak behera egiten du, eta 27,3 KPa minimo batera iristen da; 10.890 ibilgailura, hain zuzen ere.

N-637 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen EBBIaren gorabeherak EBBI orokorarentzat deskribatu ditugunen antzekoak dira. Hau da, erdialdeko KPetan behera egiten du 2.500 ibilgailu ingurura arte; bukaera aldean, berriz, hazi egiten da eguneko 2.677 ibilgailura arte. Portzentajeei dagokienez, Bilbao metropoliaren inguruan ibilgailu astunak %6aren inguruan mantentzen dira; errepidearen bukaera aldera, EBBIa baxuena den zatian, berriz, %15era igozten dira.

N-637ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOAK. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
41.849	3.153	7,53%


Iturria: geuk egina.

Batez besteko EBBIa nahiko altua da: ia 42.000 ibilgailu, eta ibilgailu astunen portzentajea %7,5ekoa da.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

N-637 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailarik baxuena, hau da, F maila, Barakaldo eta BI-604ren bidegurutzearen arteko bide-zatikoa da; eta horixe da, hain zuzen ere, EBBi altuena duen bide-zatia. Bidegurutze horretatik aurrera, zerbitzu-maila hobetu egiten da, eta C eta D mailakoa da errepidearen bukaera aldera arte; 17,8 KPtik aurrera, hau da, Deriotik aurrera, zerbitzu-maila B eta A izatera pasatzen da.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

N-637 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m) >luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) <luzera %
N-637 esk.	2	2	8	89
N-637 ezk.	0	0	9	90

Iturria: geuk egina.

N-637 errepideko plataforma-zabalerak, ia luzera osoan, 9 metrotik gorakoak dira; eta errepide-luzeraren portzentaje gutxi batzuetan daude metro gutxiagoko zabalerak.

Erradioak

N-637 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) >luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) <luzera %
N-637 esk.	0	0	0	3	97
N-637 ezk.	0	0	0	4	95

Iturria: geuk egina.

N-637ko kurbadura-erradio guztiak 250 metrotik gorakoak dira ibilbide osoan.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-637 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
N-637 gorako noranzkoan	100,0	0,0
N-637 beheko noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

N-637 errepidearen luzeraren %100ean dago aurreratzeak egiteko aukera.

Zeharbideak

N-637ak ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitzierak

N-637an ez dago abiadura-jaitziera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-637k zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

Bilboko aireportutik aurrera, gizakiaren eragin handia duen ingurune batetik pasatzen da; ingurune horretan daude bizitegi-guneak, ingurune industrialak (Derio, Zamudio, Lezama, Larrabetzu ingurua, etab.), baso-berritzeak eta kalitate ekologiko gutxiko mosaiko-itxurako larre heterogeneoak.

1.7 N-622: VITORIA-GASTEIZ - AP-68ren ELKARGUNEA


VitoriaGasteiztik AP-68rako (Altuberen parera) ibilbidea egiten du, eta, errepide horrekin batera, Bilbao eta Vitoria-Gasteiz lotzeko ibilbide nagusia da.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepideko EBBIaren bilakaera ikus daiteke jarraian datorren grafikoan:


N-622 ERREPIDEKO EBBIaren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Errepide honetako EBBI-maila altuenak errepidearen hasierakoak dira, hain zuzen ere, 35.000 ibilgailu inguru; hortik aurrera, era progresiboan egiten du behera, AP-68 inguruan 15.000 ibilgailu baino gehixeago izateraino.

N-622 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, horien portzentajea %5 eta %20 artekoa da errepide osoan; %20tik gertuago dago errepidearen azken bide-zatian, eta Vitoria-Gasteiz inguruan, berriz, gertuago dago % 5etik.

N-622eko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA


EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
20.017	3.159	15,78

Iturria: geuk egina.

Batez beste, N-622ko EBBIa 20.000 ibilgailutik gorakoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %14koa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak jarraian datorren grafikoan adierazten dira:



Zerbitzu-maila baxuena, C maila, onargarritzat har daitekeena, Vitoria-Gasteiztik irteterakoan ematen da; ondoren, hobetzen doa AP-68 inguruan A mailara iritsi arte.

Segurtasuna

N-622 errepidean ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik.

Plataforma

N-622 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK				
Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-622	0	0	9	91

Iturria: geuk egina.

N-622 osoan plataformaren zabalera 7 metrotik gorakoa da, eta luzeraren %91n, 9 metrotik gorako zabalera daude.

Erradioak

N-622 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK					
Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m)<luzera %
N-622	0,0	0,0	0,0	11,7	88,3

Iturria: geuk egina.

N-622ko kurbadura-erradio guztiak 250 metrotik gorakoak dira ibilbide osoan.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-622 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA		
Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
N-622 gorako noranzkoan	100	0
N-622 beherako noranzkoan	100	0

Iturria: geuk egina.

N-622n, autobidea denez, aurreratzeak aukera dago ibilbide osoan.

Zeharbideak

N-622k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitzierak

N-622n ez dago abiadura jaitsi beharreko bide-zatirik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-622 errepidean zirkulazio-jarraitutasuna dago ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

N-622, Ametzagako mendebaldetik Vitoria-Gasteizko iparraldean N-I errepidearekin bat egin arte, ingurumen-balio handiko Gorbeia inguruetatik igarotzen da bere ekialdeko zatian (Ap-68ren lotura); lotura ekologikoko korridore bat zeharkatzen du Aiurdin eta Zaitegi artean, eta Letonatik N-I errepidera arte, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa.

2. PORTU ETA AIREPORTUETARA IRISTEKO LEHENTASUNEN SAREA

2.1 N-624: FORONDAKO AIREPORTUKO SARBIDEA

N-624 autobideak N-622 eta Forondako Aireportua lotzen ditu, eta, beraz, Arabako hiriburutik bertako aireportura iristeko bide nagusia da.

N-624 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

N-624 errepideak neurketa-gune bakarra dauka 8,5 KPan, Foronda herritik gertu; bertan, eguneko 1.239 ibilgailuko EBBIa dauka.2003an neurketa-gune horretan ez zen ibilgailu astunei buruzko neurketarik egin. 2002. urtean 62 ibilgailu astun izan ziren, hau da, EBBIaren %4,9.

N-624ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
1.239	-	4,9%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan A zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

N-624 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-624	3	4	6	87

Iturria: geuk egina.

N-624 errepidean, 7 metro baino gutxiagoko plataforma duen luzera errepide osoaren %7koa soilik da, izan ere, zatirik handienean 9 metrotik gorako plataforma du.

Erradioak

N-624 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m)<luzera %
N-624	23	32	6	4	35

Iturria: geuk egina.

N-624 errepidean, 190 metrotik beherako erradioen portzentajea aintzat hartua izateko modukoa da, hain zuzen ere, luzera osoaren %55; erradio horiek errepidearen bukaeran daude batez ere, hau da, aireportura sartzeko gunean. Ibilbidearen gainerako zatietan, erradio gehienak 350 metrotik gorakoak dira.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-624 ERREPIDEAN AUERRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
N-624 gorako noranzkoan	100,0	0,0
N-624 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

N-624 errepidearen ibilbide osoan dago aurreratzeak aukera.

Zeharbideak

N-624k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitzierak

N-624n ez dago abiadura-jaitziera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-624k zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

Vitoria-Gasteizko aireportura iristen den errepide hau kalitate gutxiko ingurune antropiko batetik doa, Zaia ibaiarekin (Zadorraren ibaiadarra) paraleloan, eta kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik.

2.2 N-638: DONOSTIA-SAN SEBASTIANGO AIREPORTUKO SARBIDEA


Errepide honek N-I eta Hondarribia udalerria Donostiako aireportuarekin lotzen ditu.

N-638 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.


N-638ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

N-638 errepideko EBBIak gorakada nabarmena du; N-Ietik gertuen dagoen neurketa-gunean 12.520 ibilgailukoa da, eta aireportutik gertu dagoen puntuan, berriz, 25.355 ibilgailukoa.

N-638 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunek ere antzeko bilakaera dute, eta %6 eta %7 inguruan mantentzen dira bi neurketa-guneetan, hau da, 939 eta 1.520 ibilgailu astun, hurrenez hurren.

N-638ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
19.775	1.268	6,4%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, EBBIa 20.000 ibilgailukoa da ia, eta ibilgailu astunen portzentajea %6koa.

Zerbitzu-mailak

E zerbitzu-maila dago errepide osoan; horrek esan nahi du errepide honetan auto-pilaketatik gertu dauden egoerak ematen direla egun osoan zehar.

Segurtasuna

N-638n Istripuen Kontzentrazio Tarte bat dago, errepidearen hasieran, hain zuzen ere, N-I errepidearen loturatik gertu. 17 istripu gertatu ziren tarte horretan 2003an.

N-638ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
1,0	2,0	17

Iturria: geuk egina.

Plataforma

N-638 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-638	0	29	22	49

Iturria: geuk egina.

N-638 errepidearen %49an 9 metrotik gorako plataformak daude; %29an, berriz, 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalera dago.

Erradioak

N-638 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m)>luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m)<luzera %
N-638	2	6	4	2	86

Iturria: geuk egina.

N-638 errepidea nahiko zuzena da; halere, luzeraren %8an 190 metrotik beherako erradioak ditu.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-638 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeako aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeako debekua duten tarteetan luzera %
N-638 gorako noranzkoan	27,1	72,9
N-638 beherako noranzkoan	39,6	60,4

Iturria: geuk egina.

N-638 errepidean, bi noranzkoetan, luzeraren %60tik gora dira aurreratzeako debekua duten tarteak.

Zeharbideak

N-638k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

N-638an ez dago abiadura-jaitsiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-638 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, 0 eta 2,3 kilometro puntuen artean.

Ingurugiro-azterketa

Errepide hau Mugondotik Hondarribia udalerriaren eta aireportuaren artean doa; Txingudiko badiako (GKL dena) erreka-aren adarretako bat gurutzatzen du, Jaizabia erreka-aren bokalean. Errepide honek dakartzan arriskuak, Hondarribiako bizitegi-guneetan izan dezaken eraginaz gainera, badiaren hondoan eragin ditzakeen kalteak dira.


2.3 N-633: LOIUKO AIREPORTUKO SARBIDEA

N-633 Loiuko aireportura iristeko egungo autobia da, eta N-637 eta BI-631 errepideekin du lotura Derio inguruan, Bilboko konurbazioaren iparraldean.

N-633 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:


Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.



N-633ko EBBIa 11.079 ibilgailukoa da BI-631 eta aireportuaren arteko bide-zatian, eta Derio eta Aldekone arteko bide-zatian, berriz, 37.780 ibilgailukoa da; bide-zati horretan errepideak BI-631ren trazadura jarraitzen du.

N-633 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Aireportura sartzeko bide-zatian, ibilgailu astunen portzentajea %3koa da; eta BI-631rekin bat egiten duen bide-zatian, berriz, %7koa.

N-633ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
23.298	1.379	5,92%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, N-633ko EBBIa 23.298 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %5,9koa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak jarraian datorren grafikoan adierazten dira KPen gorako noranzkoan:

N-633 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Aireportura sartzeko bide-zatian A mailakoa da, baina BI-631rekin bat egiten duen bide-zatian C mailaraino jaisten da zerbitzu-maila.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

N-633 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m) >luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) <luzera %
N-633 esk.	5	15	11	68
N-633 ezk.	0	17	29	54

Iturria: geuk egina.

9 metrotik gorako zabalera duten plataformen portzentajea %54 eta %68 artekoa da, galtzadaren arabera. Bestalde, errepidearen %17 eta %22 artean 7 metro baino gutxiagoko zabalera du plataformak.

Erradioak

N-633 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) >luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) <luzera %
N-633 esk.	0	15	4	2	80
N-633 ezk.	0	12	1	1	86

Iturria: geuk egina.

Kurbadura-erradioei dagokienez, 350 metrotik gorako erradioen portzentajea %80tik gorakoa da; 190 metrotik beherako erradioen portzentajea, berriz, %10etik gorakoa.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-633 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
N-633 gorako noranzkoan	100,0	0,0
N-633 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

N-633 errepideko %100ean dago aurreratzeak egiteko aukera.

Zeharbideak

N-633k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitzierak

N-633n ez dago abiadura-jaitziera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-633k zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

Erandiotik BI-631ra doan errepide hau Bilboko aireportuaren iparraldetik doa, testuinguru antropizatu batean, bizitegi- eta industria-guneak (Erandio, Loiu, San Isidro etab.), baso-berritzeak eta kalitate ekologiko gutxiko mosaiko-itxurako larre heterogeneoak dituen ingurune batetik.

2.4 N-639: KANPOKO PORTURAKO SARBIDEA (BILBAO)


N-639 eta N-644 errepideek Bilboko kanpoko portura sartzeko ibilbidea osatzen dute, eta Nosedal herriaren parera A-8 errepidearekin bat egiten dute.

N-639 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.


N-639ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

N-639ko EBBIa, Zierbena eta portuaren artean, 2.700 ibilgailukoa da gutxi gorabehera; La Cuesta eta El Casalen arteko bide-zatian, berriz, hazi egiten da 5.007 ibilgailura arte.

N-639 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Errepide honetan ibilgailu astunen portzentajea %8 eta %9 artekoa izaten da, hau da, 250 eta 400 ibilgailu artekoa.

N-639ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
3.568	303	8,49%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

N-639 errepideko zerbitzu-maila E da ibilbide osoan, ibilgailu gehien pasatzen den orduetan, pilaketak sortzen dira, ia-ia.

Segurtasuna

Bi Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) daude: bata 16 eta 17 KPen artean, Santurtzitik gertu; eta bestea, berriz, 20 eta 21 KPen artean, La Cuestatik gertu.

N-639ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
16,0	17,0	2
20,0	21,1	1

Iturria: geuk egina.

Plataforma

N-639 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m) > luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) < luzera %
N-639	0	12	38	50

Iturria: geuk egina.

N-639 errepidearen %50ean 9 metrotik gorako plataformak daude; %12an, berriz, 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalera dago.

Erradioak

N-639 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 < (m) luzera %
N-639	3	15	9	12	62

Iturria: geuk egina.

Errepidearen luzeraren %62an 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak badaude ere, %18an 190 metrotik beherako erradioak daude; horien artean barne hartzen dira 85 metrotik beherako erradioak, luzera osoaren %3 direnak, eta La Cuesta herriaren inguruan daudenak.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-639 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
N-639 gorako noranzkoan	31,5	68,5
N-639 beherako noranzkoan	31,9	68,1

Iturria: geuk egina.

N-639 errepidearen %60an, bi noranzkoetan, debekatuta dago aurreratzeak egitea.

Zeharbideak

N-639 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003 / 1 / 1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Abanto-Zierbena	Abanto Zierbena	9.190	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

N-639 errepideak Abanto-Zierbena udalerria gurutzatzen du, eta zeharbide hori erdi-mailako gatazka egoerakoa da.

Abiadura-jaitsierak

N-639an ez dago abiadura-jaitsiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-639 errepidearen ibilbide guztian ere (15,9 eta 24,13 Kilometro Puntuen artean) zirkulazioa etena da.

Ingurugiro-azterketa

Errepide hau San Roque gainera igotzen da eta Zierbenatik jaisten da, ingurumenari dagokionez interes handiko ingurune batetik; ondoren itsasbazterretik doa Santurtzira arte. Paisaiari dagokionez, errepide honek garrantzi handia dauka; ez bertatik ikusten den paisaiagatik soilik, baita mendebaldeko Bizkaiko kostako paisaian, ingurumen-interes handiko gunen horretan, parte hartzen duelako ere.

2.5 N-644: KANPOKO PORTURAKO SARBIDEA (BILBAO)

N-644 eta N-639 errepideek Bilboko kanpoko portura sartzeko ibilbidea osatzen dute, eta Nosedal herriaren parera A-8 errepidearekin bat egiten dute.

N-644 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Neurketa-gune bakarra dago errepide honetan, 130,4 KPan, A-8 eta Santurtziko portuaren artean. Neurketa-gune horren arabera, EBBIa 15.310 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %29,4koa; horrek esan nahi du kamioiek portura joateko gehien erabiltzen duten errepidea dela. 4.500 kamioiek erabiltzen du errepide hau.

Datuak 2002koak dira, ez baitaukagu 2003ko daturik.

N-644ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2002. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
15.310	4.501	29,4%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan B zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik.

Plataforma

N-644 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-644 esk.	0	0	24	76
N-644 ezk.	3	0	31	67

Iturria: geuk egina.

Ia errepide osoan plataformaren zabalera 7 metrotik gorakoa da.

Erradioak

N-644 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 < (m) luzera %
N-644 esk.	12	13	3	4	68
N-644 ezk.	8	9	1	14	68

Iturria: geuk egina.

Errepidearen luzeraren zati handi batean kurbadura-erradio handiak daude. Halere, nabarmentzekoa da 85 metrotik beherako erradioa duten kurben portzentajea; horiek portura sartzeko bide-zatian daude batez ere.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-644 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
N-644 gorako noranzkoan	100,0	0,0
N-644 beherako noranzkoan	100,0	0,0

Iturria: geuk egina.

N-644 errepidean, aurreratzeak egiteko aukera dago ibilbide osoan.

Zeharbideak

N-644k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

N-644 errepidean abiadura nabarmen jaitsi behar den bide-zati bakarra dago, 130,7 eta 131,1 Kilometro Puntuen artean, hain zuzen ere.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
130,7	131,1	Bai

Iturria: geuk egina.

Kasu honetan, izatez, ez da ibilgailu motelentzako erreia; baina, noranzko bakoitzerako bi erreia daudenez, ibilgailu motelek baztertzeko aukera dutela ulertzen da.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-644ak zirkulazio-jarraitutasuna du ibilbide osoan.

Ingurugiro-azterketa

Errepide hau A-8tik Bilboko porturaino doa, eta dentsitate handiko hiri-guneak zeharkatzen ditu. Hiri-gune horiek erabilera desberdinak dituzte, baina nabarmena da bizitegi-guneen presentzia, bai eta horiei dagokien ingurugiro-profila ere (biztanleriari eragindako eragozpenak).

3. LEHENTASUNeko SAREKO GAINERAKO ZATIA

3.1 N-240


N-240 errepideak Tarragonatik Bilborako ibilbidea egiten du; Barazarko mendatetik pasatzen da, eta AP-68 errepidearen ordezkoa da, Bilbao eta Vitoria-Gasteiz lotzen baititu.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian datozen grafikoetan ikus daiteke N-240ko EBBIaren bilakaera.

N-240 ERREPIDEKO EBBIAREN BILAKAERA. 2003. URTEA




Iturria: geuk egina.

N-240 errepideko EBBIaren punturik altuenak Vitoria-Gasteiz ingurukoak dira, eguneko 25.000 ibilgailutik gora, hain zuzen ere, A-627ren elkargunearen hegoaldean. Balio baxuenak Errepide-sare Nagusiko A-623ren elkargunetik gertu neurtzen dira; ez dira 4.000 ibilgailuak gainditzen. Arantzazura arte 6.000

ibilgailutik behera mantentzen da EBBIa, eta, ondoren, hazi egiten da berriro, 25.000 ibilgailura arte iritsiz Bilbao Metropoliaren inguruan.

N-240 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

N-240 errepidean ibilgailu astunen portzentajeek garrantzi handia dute. Erdialdeko bide-zatian, A-627 eta Arantzazu artean, hain zuzen ere, EBBI orokorra baxuena den zatian, ibilgailu astunen portzentajeak ez dira %30etik jaisten, hau da, 1.500 ibilgailu astun inguru. Horrek honakoa adierazten du; ibilgailu astunek N-240 errepidea AP-68ren ordezkotzat erabiltzen dutela.

Bestalde, errepideko hasierako eta amaierako bide-zatietan portzentajeek behera egiten dute, nahiz eta Vitoria-Gasteiz inguruan eta Bilboko metropoliaren inguruan %10a gainditzen duten. Hasierako eta amaierako tarte horietan 3.500 ibilgailu astun inguru izaten dira, eta erdialdean, berriz, 1.500.

N-240ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
11.478	2.246	19,57%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, N-240ko EBBIa 11.500 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %20koa ia, hau da, aintzat hartzeko modukoa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen goranzko zentzuan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

N-240 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

Honako hauek dira N-240 errepideko zerbitzu-maila baxueneko tarteak, E mailakoak: 16,8 eta 21 KPen artean, A-623ren elkargunearen eta Ubidearen artean; 30,5 eta 36,2 KPen artean, Barazarko mendatea; eta 42 eta 55,4 KPen artean, Elejabeitia eta A-8ren loturaren arteko azken zatia.Beste alde batetik, Bizkaiko zati guztian D eta E zerbitzu-maila du errepideak; eta Arabako zatian, berriz, gorago esandako zatietan izan ezik, zerbitzu-maila hobeak daude, A eta C artekoak.

Segurtasuna

Errepide honetan hiru IKT daude.

N-240 ERREPIDEKO IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
14,6	15,6	9
16,6	17,6	7
20,5	21,5	4

Iturria: geuk egina.

Lehenengo biak, 14,6 eta 15, 6 eta 16,6 eta 17,6 KPen artean daudenak, Legutianotik gertu daude, A-623ren elkargunetik gertu; bide-zati horretan, noranzko bakoitzeko errei bakarra dagoenean, errepidea Urrunaga urtegiaren bazterretik doa.Hirugarren IKTa, berriz, iparralderago dago, Ollerias herriaren eta Bizkaiko mugaren artean.

Plataforma

N-240 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-240 esk. (Araba)	0	4	7	89
N-240 ezk. (Araba)	0	1	13	86
N-240 (Bizkaia)	0	14	10	76

Iturria: geuk egina.

Araban, errepidearen %90ean ia, 9 metrotik gorako plataformak daude. Errepidearen %4ean soilik daude 7 metrotik beherako plataforma-zabalerak.

Bizkaiko egoera okerragoa da; errepidearen %14an 7 metrotik beherako plataforma-zabalerak daude, Barazarko mendatearen inguruan, batez ere.

Erradioak

N-240 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
N-240 esk. (Araba)	15	10	3	5	67
N-240 ezk. (Araba)	10	11	2	3	74
N-240 (Bizkaia)	3	12	4	6	75

Iturria: geuk egina.

Kurbadura-erradioei dagokienez, nabarmentzekoa da errepidearen %15ean eta %20an, lurralde historikoaren arabera, 190 metrotik beherako erradioak daudela. Bereziki azpimarratu behar da Barazarko mendatearen inguruan daudela erradio txikiena duten kurba gehienak.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-240 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
N-240 gorako noranzkoan	48,8	51,2
N-240 beherako noranzkoan	57,5	42,5

Iturria: geuk egina.

Aurreratu ezin den bide-zatia %60 baino txikiagoa da N-240 errepideko bi noranzkoetan; zehazki, gorako bidean, %51,2ra iristen da debeku hori, eta, beherakoan, %42,5era.

Zeharbideak

N-240 errepidean bost zeharbide daude, lau Bizkaian, eta bat Araban; eta honako ezaugarri hauek dituzte:

N-240 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Bedia	Bedia	985	Handia	Bizkaia
Lemoa	Lemoa	2.767	Handia	Bizkaia
Igorre	Igorre	3.995	Handia	Bizkaia
Legutiano	Legutiano	1.442	Txikia	Araba
Usansolo	Galdakao	3.743	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Zeharbide horien artean, Bediako, Lemoako eta Igorreko gatazka-egoera handikoak dira; Legutianokoa, berriz, gatazka-egoera ertainekoa, eta Usansolokoa gatazka-egoera txikikoa.

Abiadura-jaitsierak

N-240 errepideak ez dauka abiadura-jaitsierarik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-240 errepidean zirkulazio-etena 15 eta 55 kilometro puntuen artean dago.

Ingurugiro-azterketa

N-240 errepidea, Lemoatik Barazarko mendatera arte eta Arabako mugara arte, Arratia ibaiaren ertzetik doa Alzustara arte, eta Igorrera arte kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa. Igorreko, Elejabeitiako eta Zeanuriko bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da. Urkiola eta Gorbeia lotzen dituen korridore ekologiko bat ere zeharkatzen du.

Barazarko mendatetik Legutianora arte, loturako korridore ekologiko bat zeharkatzen du Barazarko mendatearen ondoren, eta beste korridore ekologiko bat Ubidean; hortik aurrera Undabe ibaiaren ertzetik doa bide-zati batean, eta ondoren Urrunaga urtegiaren amaieraren bazterretik doa urtegia Legutianon zeharkatu arte (isurketa-arriskua, bazterretako funtzio ekologikoetan eragina).

Legutianotik Urbinara arte, Urrunaga urtegiaren ertzetik doa (isurketa-arriskua, bazterretako funtzio ekologikoetan eragina).

Urbinatik N-I errepidearen loturara arte, Vitoria-Gasteiztik iparraldera, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa.


3.2 N-104: VITORIA-GASTEIZTIK N-I ERREPIDERA, FRANTZIARAKO NORABIDEAN

N-I errepidea Vitoria-Gasteiz hiriarekin lotzen du ipar-ekialderako norabidean, Vitoria-Gasteiztik norabide horretan irteten direnen berezko irteera da.

N-104 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa


N-104ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Arkaute inguruan dagoen neurketa-gunean, Vitoria-Gasteiztik gertuen dagoenean, 12.000 ibilgailu baino gehiago zenbatzen dira; Mataucoko neurketa-gunean berriz, N-Ien loturatik gertuen dagoenean, 6.600 ibilgailu zenbatzen dira.

IBILGAILU ASTUNEN PORTZENTAJEAK N-104 ERREPIDEAN. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, horien portzentajea mantendu egiten da ia errepide osoan; bi neurketa-guneetan %6 ingurukoa da. Zenbaki absolutuak aztertuz, errepide horretako ibilgailu astunen kopurua 750ekoa da Arkauten, eta 424koa Mataucon.


N-104ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
8.958	558	6,22%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, N-104ko EBBIa ia 9.000 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %6,22koa.

Zerbitzu-mailak



N-104 errepidean E zerbitzu-maila ematen da gehien; maila horretan zirkulazio-egoera ezegonkorrak gertatzen dira, zirkulazio-dentsitate handia egoten da eta pilaketa-arriskua ere handia da. Ilarratza eta Matauco artean D zerbitzu-maila duen tarte bat dago, aurrekoa baino hobea dena, baina diferentzia handirik gabe.

Segurtasuna

N-104 errepidean ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik ibilbide osoan.

Plataforma

N-104 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK				
Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-104	0	3	9	88

Iturria: geuk egina.

N-104 errepidearen %90ean 9 metrotik gorako plataforma-zabalerak daude; eta %3an bakarrik daude 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak.

Erradioak

N-104 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK					
Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
N-104	10	6	3	4	77

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienean, %77an, hain zuzen ere, 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak badaude ere, nabarmentzekoa da N-104 errepidearen %16an 190 metrotik beherako erradioak daudela, eta %10ean 85 metrotik beherakoak.

Aurreratzeak egiteko aukera

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
N-104 gorako noranzkoan	35,4	64,6
N-104 beherako noranzkoan	29,3	70,7

Iturria: geuk egina.

N-104 errepidearen luzeraren %60 baino zati handiagoan, debekatuta dago aurreratzea, bi zirkulazio-noranzkoetan.

Zeharbideak

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Ilarratza	Vitoria-Gasteiz	61	Handia	Araba
Matauco	Vitoria-Gasteiz	32	Ertaina	Araba

Iturria: geuk egina.

N-104 errepidean Ilarratza eta Mataucoko zeharbideak daude; lehenengoa gatazka-egoera handikoa da, eta bigarrena, berriz, gatazka-egoera ertainekoa.

Abiadura-jaitsierak

N-104 errepidean ez dago abiadura-jaitsiera nabarmenik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-104 errepidean, zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar.

Ingurugiro-azterketa

Gasteizera sartzeko errepide hau batez ere hiri-ingurukoa, industrial eta hirikoa den ingurune batetik pasatzen da (Elorriaga, Arkaute, Ilarratza eta Matauco), eta bizitegi-guneetan eragina izan dezake. Plataforma, ibilbide osoan, kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa, eta bere trazadura Salburuako GKLaren ondotik doa (Elorriaga baino lehenago eta Arkaute ondoren).


3.3 N-124

Gasteiztik Logroñorako ibilbidea egiten du, Haro zeharkatuz; eta N-I errepidea Errioxako mugarekin lotzen du Armiñónen parera.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:


Zirkulazioa

Jarraian datozen grafikoetan ikus daiteke errepide honetako EBBIaren bilakaera zein den.



N-124ko EBBIa oso egonkorra da bertako hiru neurketa-guneetan; ibilbide osoan 10.500 ibilgailu ingurukoa da.

N-124 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunek ere antzeko bilakaera dute, eta %22 eta %26 inguruan mantentzen dira; hau da, 2.500 ibilgailu astun inguru.

N-124ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
10.589	2.653	25,05%

Iturria: geuk egina.

Errepide honetako batez bestekoa 10.500 ibilgailu ingurukoa da, eta ibilgailu astunen portzentaje handia dauka, %25 ingurukoa, hain zuzen ere. Horrek esan nahi du, Miranda de Ebro eta Errioxa arteko bidez-tatian, AP-68ren ordezkot gisa erabiltzen dutela ibilgailu astunek.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan E zerbitzu-maila dago; horrek esan nahi du dentsitate handia eta funtzionamendu ezegonkorra daudela, bai eta pilaketak sortzeko joera ere, ohiko erabilpen-baldintzak pixka bat aldatzen direnean.

Segurtasuna

Errepide honetan bi Istripuen Kontzentrazio Tarte daude.

N-124 ERREPIDEKO IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
28,3	29,4	4
32,7	33,8	3

Iturria: geuk egina.

Lehenengoa Lacorzanilla herritik gertu dago, N-1etik hegoaldera, 4 bat kilometrora; bigarrena, berriz, Salinillas de Buradónetik gertu dago.

Plataforma

N-124 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-124	0	1	3	96

Iturria: geuk egina.

1a errepide osoan 9 metrotik gorako plataforma-zabalerak daude; eta %1ean bakarrik daude 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak.

Erradioak

N-124 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
N-124	20	25	6	5	45

Iturria: geuk egina.

N-124ren trazadura oso bihurgunetsua da. Kurbadura-erradioei dagokienez, %45ean 190 metrotik beherako kurbadura-erradioak daude, eta %20an 85 metrotik beherakoak. Errepidearen %50ak soilik ditu 250 metrotik gorako erradioak.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-124 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeko aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeko debekua duten tarteetan luzera %
N-124 gorako noranzkoan	22,2	77,8
N-124 beherako noranzkoan	28,6	71,4

Iturria: geuk egina.

N-124 errepidearen %60an baino zati handiagoan debekatuta dago bi noranzkoetan aurreratzea.

Zeharbideak

N-124k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

N-124 errepidean ez dago abiadura-jaitiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-124 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian, hau da, 24 eta 38 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

N-124 errepidea, Armiñón eta Errioxako muga artean, Zadorra ibaiaren bazterretik doa Armiñón eta Lacorzana artean, eta Ebro ibaiaren ondotik Salinillas de Buradón herrian; eta bide-zati osoan kaltetua izatek arrisku handia duen akuifero baten gainetik doa.

3.4 N-636


N-636 errepideak Beasaindik Durangorako ibilbide egiten du Kanpazarko mendatetik barna; N-I errepidearekin bat egiten du Beasain parean, eta A-8rekin Durango inguruan, beraz, lehen mailako zeharkako ardatza osatzen du, Bizkaia eta Gipuzkoa komunikatzen dituen.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian datorren grafikoan ikus daiteke errepide honetako EBBIaren bilakaera zein den:

N-636 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA




Iturria: geuk egina.

EBBI-maila altuenak, 17.000 eta 20.000 ibilgailu artean, Beasain eta Zumarraga udalerrien artean ematen dira, hau da, errepidearen hasieran. Zumarraga eta Bergara, eta GI-627 eta Bizkaiko muga artean, EBBIa 10.000 ibilgailutik beherakoa da.

Errepide osoko EBBIrik baxuena Bizkaikoa da, Deskargako gainaren parera ematen dena, 5.000 ibilgailutik beherakoa baita. Hortik iparraldera EBBIak gora egiten du, batez ere Apatamonasterio eta Durango artean; tarte horretan 15.000 ibilgailu ingurukoa da.

N-636 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, horien portzentajea %10 eta %20 artekoa da errepide osoan; %20tik gertuago dago errepidearen hasierako bide-zatian, hau da, Beasain eta Zumarraga artean; eta amaierako zatian, berriz, Apatamonasterio eta Durango artean, gertuago dago %10etik. Erdialdeko zonan %20tik gertu mantentzen da, eta Kanpazarko mendateko bide-zatian punturik gorenera heltzen da ibilgailu astunen portzentajea, hau da, %37ra.

N-636ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
10.329	1.915	18,54%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, N-636ko EBBIa 10.300 ibilgailutik gorakoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %18,5ekoa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

N-636 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

Ia errepide osoa E zerbitzu-mailakoa da, errepide-hasieran bitan banatuta dauden A mailako hiru bide-zatietan eta Elorrio inguruan dauden D eta C mailako bide-zatietan izan ezik. E mailaren ezaugarriak dira erabilera ezegonkorra eta dentsitate handia, eta, ondorioz, ohikoak ez diren egoeretan pilaketak sortzeko arriskua izatea.

Segurtasuna

N-636 errepidean ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik.

Plataforma

N-636 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-636 esk. (Gipuzkoa)	0	10	26	63
N-636 ezk. (Gipuzkoa)	0	0	9	91
N-636 esk. (Bizkaia)	0	48	16	36
N-636 ezk. (Bizkaia)	0	6	10	84

Iturria: geuk egina.

N-636 errepidean 7 metrotik beherako plataforma-zabalera duten tarte ugari daude. Bizkaian, N-636aren %48an 7 metrotik beherako zabalerak daude, eta Gipuzkoan, berriz, portzentaje hori %10ekoa da.

Erradioak

N-636 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
N-636 esk. (Gipuzkoa)	21	10	10	4	55
N-636 ezk. (Gipuzkoa)	0	1	27	15	57
N-636 esk. (Bizkaia)	5	7	4	6	78
N-636 ezk. (Bizkaia)	5	2	0	2	90

Iturria: geuk egina.

Kurbadura-erradioei dagokienez, Gipuzkoan, errepidearen %21ean erradio txikiak daude, 85 metrotik beherakoak, hain zuzen ere. Bizkaian portzentaje hori %5ekoa da.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-636 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteak luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteak luzera %
N-636 gorako noranzkoan	45,9	54,1
N-636 beherako noranzkoan	42,9	57,1

Iturria: geuk egina.

N-636 errepidearen %54-57an debekatuta dago aurreratzea, eta, beraz, debekuak ez du ibilbidearen %60 gaintitzen.

Zeharbideak

N-636 errepideak hiru zeharbide ditu; bi Gipuzkoan, eta bat Bizkaian.

N-636 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Zumarraga	Zumarraga	10.173	Handia	Gipuzkoa
Antzuola	Antzuola	1.911	Txikia	Gipuzkoa
Abadiño	Abadiño	6.996	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Zeharbide horien artean, Zumarragakoa soilik da gatazka-egoera handikoa; Abadiñokoa, berriz, gatazka-egoera ertainekoa da, eta Antzuolakoa gatazka-egoera txikikoa.

Abiadura-jaitsierak

N-636 errepidean bi bide-zatitan abiadura jaitsi behar da. Zati horietako lehenengoa 10,5 eta 11,7 KPen artean dago, Zumarragatik gertu; bigarrena, berriz, 15,5 eta 16 KPen artean, Deskargako mendatean, hain zuzen ere.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-636 errepidean zirkulazioa etena da honako hiru puntu hauetan: 4,5 eta 24,5 KPen artean; 29,8 eta 41,6 KPen artean; eta 43,9 eta 51,2 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

N-636, Zumarraga eta Beasain artean, erdi-mailako ingurugiro-kalitatea duten guneeetatik igarotzen da, eta Zumarraga eta Beasain udalerrietako bizitegi-guneetatik gertu.

Bergararik Zumarragara, Deskargako mendatetik doa, trazadura konplexua du eta erdi-mailako ingurugiro profila (Deskarga erreka- eta Antzuolako bizitegi-gunearen ondorengo doa); baina, Bergara eta Antzuola artean, korridore ekologiko potentzial bat zeharkatzen du.

San Prudentziotik Kanpazarko mendatera lotura ekologikoko korridore bat zeharkatzen du.

Kanpazarko mendatetik Durangora arte, Ibaizabal ibaiaren ondorengo doa (Elorriotik Durangora arte), eta Durango eta Zelaierako bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da.

Durangotik Otxandiora eta Arabako mugara arte, Mañaria ibaiaren ondorengo doa (Durangotik Mañariara), kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik; ondoren, ingurumen- eta paisaia-balio handia duen Urkiolako gunea zeharkatzen du, eta Urkiola erreka- bazterretik doa (Amaitarminetik amaierara); Urrunaga urtegiaren amaiera aldera, lotura ekologikoko korridore bat zeharkatzen du.

3.5 N-634


N-634 errepideak Donostia eta A Coruña arteko ibilbidea egiten du, eta Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio Donostia eta Kantabriako muga arteko bide-zatia.

N-634 A-8 autobidearen paralelo dago, eta bere funtzioa osagarria da; hau da, autobidearen banatzaile eta ordezkot bide da, aldi berean.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian datorren grafikoan ikus daiteke errepide honetako EBBIaren bilakaera zein den:




N-634 errepideko EBBI altuena Bilbao metropoliaren inguruan neurtzen dena da: area guzti horretan 30.000 ibilgailutik gorakoa da, 45.000 ibilgailura ere iritsiz batzuetan. Bilbao eta Kantabriako muga artean behera egiten du zirkulazioak; bide-zati horretan, EBBIa 10.000 eta 15.000 ibilgailu artekoa da.

Kantabriatik gertuen dagoen puntuan EBBIa 5.000 ibilgailura ere ez da iristen; errepide honetako minimoa da, hain zuzen ere.

Bilbao eta Gipuzkoa artean zirkulazioak gora eta behera egiten du. Adibidez, Durango eta Galdakao artean 25.000 ibilgailu ingurukoa da; baina, Durango eta Ermua artean 10.000 ibilgailura arte jaisten da, eta horren inguruan mantentzen da Gipuzkoako mugara arte.

Gipuzkoan, gora egiten du berriz Eibar eta Elgoibar artean, ia 20.000 ibilgailura arte iritsiz. Elgoibar eta Donostia artean zirkulazioa 10.000 ibilgailu baino gutxiagora arte jaisten da berriz, eta, azkenik, hiriburutik gertu, gora egiten du beste behin.

N-634 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Ibilgailu astunen portzentajeak %10 eta %12aren inguruan mantentzen dira ia errepide osoan zehar. Bilbao metropolitik gertu, eta Ermua – Eibar – Elgoibar udalerrien ardatzean, gorakada bat ikus daiteke, %14ko portzentajera iristen baitira. Bolumenei dagokienez, ibilgailu astunen kopurua 5.600 eta 500 artekoa da, eta EBBI orokorrarentzat deskribatutakoaren antzeko joera dute.

N-634ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
15.401	1.696	11,01%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, N-634ko EBBIa 15.000 ibilgailutik gorakoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %11koa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen goranzko zentzuan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

N-634 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handiena E zerbitzu-mailakoa da. Alabaina, badaude salbuespen batzuk, D, edo A, B, eta C zerbitzu-maila dutenak; bide-zati horiek zirkulazio-intentsitate txikiko bide-zatiak edo, Bilbao metropoliaren inguruan, errepidea bitan banatuta duten zonak dira.

Segurtasuna

Errepide honetan 11 Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) daude:

N-634 ERREPIDEKO IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
51,8	53,1	9
84,0	85,1	12
94,9	95,9	6
98,5	99,5	5
99,7	101,0	14
101,7	103,1	23
103,6	104,6	13
104,9	106,0	18
124,7	125,7	7
128,0	129,0	13
131,8	133,0	3

Iturria: geuk egina.

IKT horietatik bost Bilbao metropolian daude, 98,5 eta 106 KPen artean; zehazki, Urgoil, Bekea, La Cruz eta Ventas nukleoek inguratutako gunean. Beste hiru 124,7 eta 133 KPen artean daude, Bilbao eta Kantabriako muga artean, Ortuella, Las Carreras eta Somorrostro herrietan, hain zuzen ere. Beste bi IKT daude Bizkaian, 84 eta 95 KPetan, Euban eta Amorebietan, hurrenez hurren.

Azkenik, Gipuzkoan IKT bakarra dago. 51,8 KPan dago, Mendaro udalerritik gertu.

Plataforma

N-634 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-634 (Gipuzkoa)	0	36	47	18
N-634 esk. (Bizkaia)	0	19	28	53
N-634 ezk. (Bizkaia)	4	29	44	23

Iturria: geuk egina.

N-634ko plataforma-zabalerak, errepidearen zati handi batean, 7 metrotik beherakoak dira; eta batez ere Gipuzkoan, izan ere, zabalera horretako zatien portzentajea %36koa da bertan. Edonola ere, errepidearen zatirik handienean plataforma-zabalerak 7 metrotik gorakoak dira.

Erradioak

N-634 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) >luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
N-634 (Gipuzkoa)	10	20	10	3	57
N-634 esk. (Bizkaia)	3	11	5	7	74
N-634 ezk. (Bizkaia)	1	11	6	7	75

Iturria: geuk egina.

N-634 errepideko kurbadura-erradioen portzentaje handi bat 190 metrotik beherakoa da. Zehazki, portzentaje hori %30ekoa da Gipuzkoan, eta Bizkaian, berriz, %14koa.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-634 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
N-634 gorako noranzkoan	41,1	58,9
N-634 beherako noranzkoan	43,2	56,8

Iturria: geuk egina.

N-634 errepidean, ezin da aurreratu goraka doan ibilbidearen %59an eta beheraka doan ibilbidearen %57an; beraz, debekuak ez dio ibilbide-luzeraren %60ari baino zati handiagoari eragiten.

Zeharbideak

N-634 errepideak, guztira, 25 zeharbide ditu ibilbide guztian zehar: lehentasuneko sareko errepideetan dauden zeharbide guztien %61.

Zeharbide horietako zortzi gatazka-egoera handikoak dira. Zeharbide horiek honako hauek dira: Barakaldo, Ermua, El Casal poligonoa eta San Juan Bizkaian; eta Eibar, Orio, Zarautz eta Zumaia Gipuzkoan.

Zeharbideak eta horien ezaugarri batzuk jarraian datorren taulan ikus daitezke:

N-634 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Barakaldo	Barakaldo	94.727	Handia	Bizkaia
Ermua	Ermua	16.735	Handia	Bizkaia
El Casal poligonoa	Abanto Zierbena	677	Handia	Bizkaia
San Juan	Muskiz	5.619	Handia	Bizkaia
Bilbao	Bilbao	353.567	Ertaina	Bizkaia
Las Carreras	Abanto Zierbena	1.572	Ertaina	Bizkaia
Nocedal	Ortuella	196	Ertaina	Bizkaia
Ortuella	Ortuella	8.763	Ertaina	Bizkaia
Retuerto	Trapagaran	-	Ertaina	Bizkaia
Trapagaran	Trapagaran	12.686	Ertaina	Bizkaia
Ugarte	Trapagaran	725	Ertaina	Bizkaia
Zorroza	Zorroza	-	Ertaina	Bizkaia
Bilbao	Bilbao	353.567	Ertaina	Bizkaia
Berriz	Berriz	4.445	Ertaina	Bizkaia
Iurreta	Iurreta	4.146	Ertaina	Bizkaia
Basauri	Basauri	44.935	Ertaina	Bizkaia
Euba	Amorebieta-Etxano	540	Txikia	Bizkaia
Eibar	Eibar	28.182	Handia	Gipuzkoa
Orio	Orio	4.605	Handia	Gipuzkoa
Zarautz	Zarautz	21.680	Handia	Gipuzkoa
Zumaia	Zumaia	8.656	Handia	Gipuzkoa
Deba	Deba	5.275	Ertaina	Gipuzkoa
Elgoibar	Elgoibar	10.637	Ertaina	Gipuzkoa
Getaria	Getaria	2.494	Ertaina	Gipuzkoa
Aginaga	Usurbil	500	Txikia	Gipuzkoa

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsierak

N-634 errepidean, abiadura-jaitsiera honako bide-zati hauetan gertatzen da.

- √ 14 KPtik 15 KPra, Oriotik gertu.
- √ 33 KPtik 34 KPra, Zumaia eta Deba artean, Itziarko mendatean.
- √ 62 KPtik 62,7 KPra, Eibarren.
- √ 68 KPtik 69,5 KPra, Areitioko mendatean.

Honako errei gehigarri hauek ditu:

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

N-634

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
14,0	15,0	Bai
33,0	34,0	Ez
62,0	62,7	Bai
68,0	69,5	Ez

Iturria: geuk egina.

Ikus daitekeen bezala, Itziarko eta Areitioko mendateetan abiadura jaisteko beharra dagoen bide-zatietan ez dago errei gehigarririk.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-634 errepidean zirkulazioa etena da 0tik 98rako KPetan, 108tik 109rako KPetan eta 113tik 136rako KPetan.

Ingurugiro-azterketa

N-634 errepideak, Zarauztik Lasartera, zirkulazio ugari bideratzen du; Zarauzko bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da eta Orio ibaiaren (GKL dena) bazterretik doa (isurketak gertatzeko eta ibai-bazterretan eragina izateko arriskua).

Debatik Zarautzera ere zirkulazio ugari bideratzen du, paisaia-balio handia duen kostaldetik doa (Zarautz, Zumaia), eta soinu-eragozpenak eragiten ditu Zarauzko, Getariako, Zumaiaiko eta Debako bizitegi-guneetan.

Eibartik Debara zirkulazio handia bideratzen du Egoren haranean (Eibar) eta Debaren haranean barna -bide-zati batzuek ibai horien bideekin bat egiten dute (isurketa-arriskuak, ertzetan efektuak)-, bai eta Eibarko, Elgoibarko, Mendaroko eta Debako bizitegi-guneetatik gertu ere. Mendaro eta Deba artean kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik igarotzen da. Gainera, Mendaro eta Sasiola artean, korridore ekologiko bat zeharkatzen du.

Kantabriako mugatik Ugartera bitartean, zirkulazio handia bideratzen du erdi-mailako ingurugiro-profila duen gun batetik.

Ugartetik (Barakaldo) Galdakaora bitarte, Barakaldoko, Deustoko, Bilboko eta Galdakaoko bizitegi-guneetatik gertu zirkulazio handia bideratzen du, eta ohiko hiri-paisaian parte hartzen du; gainera, ibai-bazterraren ondotik doa.

Bilbon, dentsitate handiko bizitegi-guneetatik pasatzen da, eta horietan eragina izateko aukera ugari daude.

Galdakaotik Amorebieta-Etxanora, zirkulazio handia bideratzen du Ibaizabal ibaiaren ibilbideari jarraituz (Lemoara arte), eta Galdakaoko, Usansoloko eta Lemoako bizitegi-guneetatik pasatzen da.

Amorebieta-Etxanotik Durango eta Ermura, zirkulazio handia bideratzen du Ibaizabal ibaiaren ondotik (Durangora arte), eta ibai horren bazterretan errepidearen eta bertako zirkulazioaren eraginak jasaten dituzten bizitegi-guneak daude, bereziki Durangon. Korridore ekologiko bat zeharkatzen du Euba inguruan (A-8rekin batera doa), eta bere azken zatian Zeku erreka bidearen ondotik doa.

3.6 N-121-A

Iruña eta Behobia arteko ibilbidea egiten du; Behobiatik Nafarroako mugara arte, Frantziako mugarekin paraleloan doa, eta Donostia eta Iruña arteko zirkulazioarentzat ordezeko bide gisa balio du.

Zirkulazioa

Errepide honetan ez dago neurketa-gunerik, beraz, ez daukagu errepide honetako zirkulazioari buruzko daturik.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan D zerbitzu-maila dagoela balioesten da.

Segurtasuna

N-121 errepidean ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik.

Plataforma

N-121-A ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
N-121-A	1	73	25	0

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienez 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalerak daude, eta zabalera handiena 9 metrokoa da.

Erradioak

Ez daukagu errepide honetako kurbadura-erradioei buruzko daturik.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-121-A ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
N-121-A gorako noranzkoan	55,4	44,6
N-121-A beherako noranzkoan	54,9	45,1

Iturria: geuk egina.

N-121-A errepidean, ezin da aurreratu ibilbide-luzeraren %45ean, bi noranzkoetan; debeku horrek ez du luzeraren %60 gainditzen.

Zeharbideak

N-121-A errepidean zeharbide bakarra dago, Behobiako udalerrikoa, hain zuzen ere; zeharbide hori Gipuzkoan dago, eta gatazka-egoera txikikoa da.

Abiadura-jaitsierak

N-121-A errepideak ez dauka abiadura-jaitiera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-121-A errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da, 70,5 eta 77,5 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa


Irundik Nafarroako mugara, N-121-A errepidea Bidasoa ibaiaren ondotik doa, isurketak gertatzeko eta ibai-ertzean eragina izateko arriskua sortuz; gainera, gunehori interes handiko paisaia batean dago eta Garrantzi Komunitarioko Lekua da.

3.7 N-629

Burgostik Santoñarako ibilbidea egiten du; ibilbidearen zati bat, Lanestosa udalerriaren inguruan, Bizkaitik pasatzen da.


Zirkulazioa

Errepide honetan bi neurketa-gune soilik daude, eta horietan honako datu hauek jasotzen dira:



EBBIa 1.100 eta 1.400 ibilgailu artekoa da, eta aldaketa gutxi dago neurketa-gune batetik bestera.

N-629 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Ibilgailu astunen portzentajeak %7 eta %8 artekoak dira; horien balio absolutuak eguneko 77 eta 112 ibilgailu astun artekoak dira.

N-629ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
1.269	97	7,61%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan C zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

N-629 errepidean ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik.

Plataforma

N-629 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m) > luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) < luzera %
N-629	8	75	17	0

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienez 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalerak daude, eta zabalera handiena 9 metrokoa da.

Erradioak

N-629 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
N-629	4	18	5	7	65

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %22an 190 metrotik beherako kurbadura-erradioak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

N-629 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
N-629 gorako noranzkoan	61,9	38,1
N-629 beherako noranzkoan	74,6	25,4

Iturria: geuk egina.

N-629 errepidearen luzeraren %25-38an debekatuta dago aurreratzea; debeku hori ez da %60 baino handiagoa.

Zeharbideak

N-629 errepidean zeharbide bakarra dago, Lanestosa udalerrikoa, hain zuzen ere; zeharbide hori gatazka-egoera txikikoa da.

Abiadura-jaitzierak

N-629 errepideak ez dauka abiadura-jaitziera nabarmenik ibilbide osoan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

N-629 errepidean, zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar.

4. ERREPIDE-SARE NAGUSIA

4.1 A-132


Lumbierreko bidea egiten du Tafalla eta Lizarratik, Elorriaga - Santikurutze Kanpezu Arabako bide-zatian. Erkidegoko hegoaldetik Errioxara doazen ibilgailuak banatzeko aukera ematen du.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian datorren grafikoan errepide honetako EBBIaren bilakaera ikus daiteke.


A-132 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

A-132 errepideko zirkulazioa ez da inongo puntutan eguneko 5.000 ibilgailu baino gehiagokoa. Zirkulazio gehiena Vitoria-Gasteiz inguruan biltzen da, eta behera egiten du hegoaldera joan ahala.

A-132 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen portzentajea %9,5 eta %11 artean mantentzen da errepide osoan. Eguneko 250-500 ibilgailu astun zenbatzen dira.

A-132ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
3.024	323	10,68%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, A-132ko EBBIak ez ditu eguneko 3.000 ibilgailuak gainditzen, eta ibilgailu astunen portzentajea %10koa izaten da.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan B zerbitzu-maila dago; maila hori maila hoberenetik gertu dago.

Segurtasuna

Bi IKT daude errepide honetan, eta honako KP hauen artean daude horiek:

A-132ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
7,8	8,9	2
22,9	23,9	0

Iturria: geuk egina.

Lehenengo IKTa Argandoñatik gertu dago (Gasteiztik gertu); bigarrena, berriz, errepidearen erdialdera dago, Birgara Goienen.

Plataforma

A-132 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-132	0	22	4	74

Iturria: geuk egina.

A-132 errepidearen %74an 9 metrotik gorako plataformak daude; halere, %22an, 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalera dago.

Erradioak

A-132 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-132	26	17	4	6	47

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zati handi batek, %43ak, hain zuzen ere, 190 metro baino gutxiagoko erradioak ditu, eta %47an soilik daude 350 metrotik gorako erradioak; horrek esan nahi du errepide honen trazadura oso bihurgunetsua dela.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-132 ERREPIDEAN AUERRERATZEA EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
A-132 gorako noranzkoan	51,6	48,4
A-132 beherako noranzkoan	49,7	50,3

Iturria: geuk egina.

A-132 errepidean, ezin da aurreratu ibilbide-luzeraren %50ean, bi noranzkoetan, eta, beraz, debeku horrek ez du luzeraren %60 gainditzen.

Zeharbideak

A-132 errepidean hiru zeharbide daude; horietako bat, Ataurikoa, gatazka-egoera ertainekoa da, eta beste biak, Azazetakoa eta Arraia-Maeztukoa, gatazka-egoera txikikoak.

A-132 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Atauri	Arraia-Maeztu	42	Ertaina	Araba
Azazeta	Arraia-Maeztu	38	Txikia	Araba
Arraia-Maeztu	Arraia-Maeztu	738	Txikia	Araba

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsierak

A-132 errepidean, 13 eta 17 KPen artean jaitsi behar da abiadura, Azazetako mendatean, hain zuzen ere.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
12,9	16,9	Bai

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsiera gertatzen den bide-zatian badago ibilgailu motelen erreia.

Zirkulazio-jarraitutasuna

A-132 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da 3 eta 42 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

A-132 errepidea, Arkautetik Santikurutze Kanpezura eta Nafarroako mugara, kaltetuak izateko arrisku handia duten akuiferoen gainetik doa Arkautetik Argandoñara, Azazetako mendatean, Berrongo haranean Birgararaino, eta Atauritik Nafarroaraino. 4 korridore ekologiko zeharkatzen ditu: Arkauten, Argandoñan, Azazetako mendatean eta Birgara Goiendik iparraldera eta Atauritik iparraldera. Atauriko iparraldetik aurrera Izkizko inguruan parte hartzen du, ingurumen-balio handia duen inguruan, eta ibilbide osoa paisaia-balio handikoa da.


4.2 A-624

Altube eta Balmaseda arteko ibilbidea egiten du, N-622 errepidearen eta Burgos probintziako mugaren arteko bide-zatian.

A-624 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:


Zirkulazioa

Jarraian datorren grafikoan errepide honetako EBBIaren bilakaera ikus daiteke.



A-624 errepideko EBBIak bilakaera aldakorra du, neurketa-guneetako datuek erakusten duten bezala. Halere, esan daiteke hasierako KPetan EBBIa eguneko 3.000 eta 4.500 ibilgailu artekoa dela. Respaldizatik aurrera, EBBIak behera egiten du eguneko 2.246 ibilgailura arte, eta azkenik, Artziniega inguruan, 463koa da soilik.

A-624 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen EBBIak ere bilakaera aldakorra du, orokorraren antzera. Portzentaje altuenak Urkillo eta Larrinbeko bidegurutzean jasotzen dira, %16tik gorakoak baitira bertan; gainerako lekuetan %6 ingurukoak izaten dira. Zenbaki absolutuei dagokienez, errepide honetan ez dago eguneko 800 ibilgailu astunetik gora pasatzen diren puturik.

A-624ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
2.980	272	9,13%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, A-624ko EBBIa ia 3.000 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %9tik gorakoa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

A-624 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ia errepide osoa C zerbitzu-mailakoa da, azkeneko bide-zatia izan ezik; zati hori Artziniega inguruan dago, eta B mailakoa da. Beraz, orokorrean, errepide hau egoera onean dagoela esan daiteke.

Segurtasuna

Aurreko puntuan esandakoa horrela bada ere, errepide honetan lau Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) daude.

A-624ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
24,30	25,30	3
30,10	31,20	1
33,00	34,00	1
38,80	40,00	1

Iturria: geuk egina.

Lehenengoa Altubetik gertu dago, eta hurrengo hirurak Urkillo eta Amurrio artean.

Plataforma

A-624 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m) >luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) <luzera %
A-624	4	34	19	43

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %38an 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak daude; eta %43an bakarrik daude 9 metrotik gorako plataforma-zabalerak.

Erradioak

A-624 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) >luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-624	45	18	7	7	23

Iturria: geuk egina.

A-624 errepideak trazadura bihurgunetsua du; %45ean 85 metro baino gutxiagoko kurbadura-erradioak daude, eta, gainera, %18 gehiago dago 190 metro baino gutxiagoko kurbadura erradioekin.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-624 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
A-624 gorako noranzkoan	42,8	57,2
A-624 beherako noranzkoan	32,3	67,7

Iturria: geuk egina.

A-624n, beherako noranzkoan, debekuak ibilbidearen %60an du eragina, eta gorako noranzkoan, berriz, %57an.

Zeharbideak

A-624 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Amurrio	Amurrio	9.555	Handia	Araba
Artziniega	Artziniega	1.381	Txikia	Araba
Respaldiza	Aiara	374	Txikia	Araba

Iturria: geuk egina.

Hiru zeharbide dauzka ibilbidean zehar, eta horietako bakarra da, Amurriokoa, hain zuzen ere, gatazka-egoera handikoa; Artziniegakoa eta Respaldizakoa, berriz, gatazka-egoera txikikoak dira.

Abiadura-jaitsierak

A-624 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura:

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
21,9	23,7	Ez
27,6	28,1	Ez
31,4	32,7	Ez
34,7	34,9	Ez
38,1	38,9	Ez
42,9	43,2	Ez
47,4	48,7	Ez
54,9	57,1	Ez

Iturria: geuk egina.

Nabarmentzekoa da bide-zati horietako bakar batean ere ez dagoela errei gehigarririk.

Zirkulazio-jarraitutasuna

A-624 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da, 21,9 eta 60,3 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

Errepide luze hau ingurumen- eta paisaia-balio handia duen ingurune batetik doa bere ekialdeko zatian, Arkauteko mendatetik aurrera, Gorbeiako ingurunearen eta Arkamoko mendien arteko loturaren eremuan. Gainera, Altube ibaiaren haranean barrena doa, bera baino gorago eraikita, ondotik dohakion A-68rekin sinergian. Ondoren, Amurrio aldera, erdi-mailako kalitatea duten nekazaritza-inguruneetatik pasatzen da. Amurrio zeharkatzen du, bizitegi-guneetan eraginez, eta bere ibilbide luzeari jarraitzen dio Respaldiza, Menagarai, Llanteno, Artziniega, Las Heras eta Santa Koloma zeharkatuz. Ibilbide hori Salvada mendilerro interesgarriaren ekotono-ingurune batetik doa, horren mugetara iritsi gabe, baina horren bazterreko harreman ekologikoetan eraginez. Gainera, aurretik aipatutako nukleoak zeharkatzen ditu.

4.3 A-124


Briñastik Logroñarako ibilbidea egiten du Laguardiatik, eta Arabako hegoaldea eta Errioxa lotzeko ordezeko bide bat da.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian datozen grafikoetan ikus daiteke A-124 errepideko EBBIaren bilakaera zein den.


A-124 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

EBBIa 4.000 ibilgailutik beherakoa da errepide osoan; zirkulazioa handiagoa da Errioxako mugatik gertuen dagoen zatian.

A-124 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Errepide honetan ibilgailu astunen portzentajea %5 eta %8 artekoa izaten da, hau da, eguneko 300 ibilgailu astun baino gutxiago.

A-124ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
2.534	193	7,62%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, A-124ko EBBIa 2.500 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %7,6koa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-maila C da ibilbide osoan; horrek esan nahi du errepidea ez dagoela egoera txarrean.

Segurtasuna

Errepide-sare nagusiko A-124 errepidean hiru IKT daude, honako KP hauetan:

A-124ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
62,8	63,8	2
73,5	74,6	1

Iturria: geuk egina.

Lehenengo IKTa Laguardia inguruan dago, eta 2003an, biktimak eragindako bi istripu izan ziren bertan. Bigarrena Assa herritik gertu dago, eta, 2003an, biktimak eragindako istripu bat gertatu zen bertan.

Plataforma

A-124 ERREPIDEKO PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-124	0	47	7	46

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %47an 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak daude; eta %46an bakarrik daude 9 metrotik gorako plataforma-zabalerak.

Erradioak

A-124 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-124	51	21	6	4	17

Iturria: geuk egina.

A-124 errepidearen trazadurak erradio txikia duten bihurgune ugari ditu. Izan ere, errepidearen luzeraren erdia baino gehiago 85 metrotik beherako erradioa duten bihurguneak dira.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-124 ERREPIDEAN AURRERATZEA EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeko aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeko debekua duten tarteen luzera %
A-124 gorako noranzkoan	58,2	41,8
A-124 beherako noranzkoan	57,6	42,4

Iturria: geuk egina.

A-124 errepidean, debekatuta dago aurreratzea ibilbide-luzeraren %42an baino zati handiagoan, bi noranzkoetan; beraz, ez da ibilbidearen %60 gainditu.

Zeharbideak

A-124 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Bastida	Bastida	1.302	Ertaina	Araba
Laguardia	Laguardia	1.463	Ertaina	Araba

Iturria: geuk egina.

Errepideak bi zeharbide dauzka, Bastida eta Laguardia udalerrietan, biak ere gatazka-egoera txikikoak.

Abiadura-jaitsierak

A-124 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura:

- ✓ 41,7 eta 42,3 KPen artean, Bastidatik gertu.
- ✓ 56,7 eta 57,1 KPen artean, Samaniegotik gertu.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
41,7	42,3	Ez
56,8	57,2	Ez

Iturria: geuk egina.

Ez dago ibilgailu motelen erreirik bi bide-zati horietan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

A-124 errepidean, zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar.

Ingurugiro-azterketa

A-124 errepidea, Briñastik aurrera, Ebroren ondotik doa Errioxako mugan; eta Bastidako, Samaniegoko eta Laguardiako zeharbideetan bizitegi-guneak zeharkatzen ditu; gainera, Assako El Campillarren korridore ekologiko bat zeharkatzen du.

4.4 A-627 ETA GI-627


Bi bideek batera Vitoria-Gasteiz eta Maltzaga (Eibar) arteko bidea egiten dute.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa


Jarraian datozen grafikoetan ikus daiteke errepide honetako EBBIaren bilakaera zein den.

A-627 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.


GI-627 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.


A-627ko EBBIa eguneko 8.900 eta 9.300 ibilgailu artekoa da. Gipuzkoara sartzean, Arlaban gainean, EBBIak behera egiten du, 2.000 ibilgailu baino gutxiagora arte. Ondoren, iparraldera doan heinean, gora egiten du berriz, Elorregi inguruan 20.000 ibilgailuak gainditu arte. Puntu horretatik A-8ren loturan errepidea amaitu arte, EBBIa 10.000 ibilgailutik gorakoa da.

A-627 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

GI-627 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, nabarmentzekoa da Arlabango mendateko portzentaje handia, %70etik gorakoa baita bertan; horrek esan nahi du ibilgailu arinek beste bide batzuk aukeratzen dituztela mendate hori ekiditeko. Errepidearen gainerako zatietan, bai Arabako zatian, bai eta Gipuzkoakoan ere, ibilgailu astunen portzentajea %15 ingurukoa da.

A-627ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
9.116	1.296	14,21%

Iturria: geuk egina.

GI-627ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA


EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
11.775	2.239	19,02%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, A-627 errepideko EBBIa 9.000 ibilgailutik gorakoa da; Gipuzkoako zatian gaintu egiten da kopuru hori, 11.500 ibilgailutik gorakoa baita. Ibilgailu astunen portzentajea %14koa da A-627 errepidean, eta Gipuzkoan, berriz, %19koa.

Zerbitzu-mailak

A-627 ETA GI-627 ERREPIDEETAKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilbide osoa E zerbitzu-mailakoa da, GI-627ko 8 kilometroko bide-zati batean izan ezik; zati hori Arlaban gainean dago, eta D mailakoa da, zirkulazio-dentsitate handia dela eta.

Segurtasuna

A-627ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
15,1	16,1	2
17,1	18,1	4

Iturria: geuk egina.

GI-627ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
18,1	19,1	5
28,8	30,0	7

Iturria: geuk egina.

A-627 errepidean bi IKT daude, eta beste bi GI-627 errepidean. A-627ko biak Urbina udalerriaren inguruan eta Gipuzkoako mugaren inguruan daude, hurrenez hurren. GI-627 errepidean IKT bat dago Arabako mugaren ondoan dagoen bide-zatian, A-627ko bigarren IKTaren jarraian. Bigarren IKTa Eskoriatza eta Aretxabaleta udalerrien artean dago.

Plataforma

A-627 ETA GI-627 ERREPIDEEN PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-627	0	13	13	74
GI-627	0	17	46	37

Iturria: geuk egina.

A-627ren luzeraren %74an plataformaren zabalera 9 metrotik gorakoa da. GI-627an, berriz, %37ak soilik gainditzen du zabalera hori, eta errepidearen zatirik handienak 7 eta 9 metro arteko plataforma-zabalera du.

Erradioak

A-627 ETA GI-627 ERREPIDEEN KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-627	32	8	2	5	53
GI-627	8	16	14	5	57

Iturria: geuk egina.

Nabarmentzekoa da 85 metrotik beherako erradioen portzentajea A-627 errepidean, %32, hain zuzen ere; Gipuzkoan, portzentaje hori %8ra jaisten da. Orokorrean, bi errepideek nahiko bihurgunetsua den trazadura dute, batez ere A-627k.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-627 ETA GI-627 ERREPIDEETAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
A-627 gorako noranzkoan	29,9	70,1
A-627 beherako noranzkoan	29,7	70,3
GI-627 gorako noranzkoan	36,6	63,4
GI-627 beherako noranzkoan	35,4	64,6

Iturria: geuk egina.

A-627 eta GI-627 errepideetan, aurreratze-debekua %60tik gorakoa da; zehazki, A-627 errepidean, luzeraren %70ean du eragina debekuak eta, GI-627 errepidean, luzeraren %64an.

Zeharbideak

A-627 eta GI-627 errepideek osatzen duten ibilbidean ez dago zeharbiderik.

Abiadura-jaitsierak

A-627an ez dago abiadura-jaitsierako bide-zatirik; aldiz, GI-627an, bide-zati bat dago, 52,2 eta 53 KPen artean, Soraluze-Placencia de las Armas inguruan.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
52,2	53,0	Bai

Iturria: geuk egina.

Bide-zati horretan badago ibilgailu motelen errei gehigarria.

Zirkulazio-jarraitutasuna

Bi errepide hauetan zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da, 12,5 eta 56 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

A-627, Arlaban mendatetik Urbinara arte, korridore ekologiko batetik doa mendatearen ondotik, eta gainerakoa erdi-mailako ingurugiro-kalitatea duten guneeetatik.

GI-627, Elgoibar eta Bergara artean, Deba ibaiaren ondotik doa (ibai-bazterretan eraginez) ibilbide osoan, eta Bergarako bizitegi-guneen ondotik ere pasatzen da.

Bergaratik Arlaban mendatera arte, Araban, Deba ibaiaren ondotik doa (Bergaratik Eskoriatzara arte), ondoren paisaia-interesa duen gun e batetik (Eskoriatzatik Arabara arte), eta Bergarako, Arrasateko, Aretxabaletako eta Eskoriatzako bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da. Gainera, San Prudentzio ondoan, lotura ekologikoko korridoreak zeharkatzen ditu.


4.5 BI-625 ETA A-625

Bi bideek batera Arabako Amurrio eta Laudio udalerriak Bilboko metropoli-arearekin lotzen dituzte.

Zirkulazioa

Jarraian datorren grafikoan aztertzen ari garen errepideetako EBBIaren bilakaera zein den ikus daiteke.


A-625 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

A-625 errepidean, EBBIak era progresiboan egiten du gora; Amurrio hegoaldean 5.000 ibilgailukoa da, eta Laudio eta Bizkaiko mugaren arteko bide-zatian, berriz, 15.000 ibilgailura iristen da.


BI-625 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.


Bizkaiko bide-zatian EBBIak gora egiten jarraitzen du, Arabako azkeneko neurketa-gunean 15.000 ibilgailukoa izatetik, Bilboko metropolitik gertuen dagoen neurketa-gunean, Arrigorriaga inguruan, 30.000 ibilgailukoa izatera pasatzen baita.

A-625 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

BI-625 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen portzentaje altuena, %29, Arabako bide-zatian dago, Laudio eta Bizkaiko mugaren artean. A-625 errepidearen gainerako zatietan %12 ingurukoa da. BI-625 errepidean, berriz, ibilgailu astunen portzentajea %11 eta %17 artekoa da.

A-625eko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
11.385	1.491	13,10%

Iturria: geuk egina.

BI-625ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
18.527	2.750	14,84%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, zirkulazio bolumen handiagoa bideratzen du BI-625 errepideak, 18.500 ibilgailutik gora, hain zuzen ere; A-625 errepidean, berriz, EBBIa 11.300 ibilgailukoa da. Ibilgailu astunei dagokienez, horien bolumenak ere proportzionalki egiten du gora Bizkaiko bide-zatian Arabako bide-zatiarekin konparatuz gero; BI-625ean 2,750 ibilgailu astun, eta A-625ean, berriz, 1.500 soilik. Halere, ikusten den bezala, ibilgailu astunen portzentajeak homogeenak dira bi bideetan.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

A-625 ETA BI-625 ERREPIDEETAKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

A-625eko hasierako bide-zatian, Amurrioren hegoaldekoan, errepidea B zerbitzu-mailakoa da, eta E mailakoa bihurtzen da Laudio eta Amurrio udalerrien arteko bide-zatian. Bizkaiko bide-zatian C mailakoa da Bilbao metropolira iritsi arte; hor, berriz egiten du behera E mailara arte.

Segurtasuna

A-625 errepidean lau Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) daude, eta beste bi BI-625 errepidean; horiek honako KP hauetan daude.

A-625eko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
354,2	355,4	2
356,1	357,2	5
360,8	361,9	2
371,1	372,3	2

Iturria: geuk egina.

A-625eko lehenengo hiru IKTak errepideko hasierako bide-zatian daude, Amurrio hegoaldean, eta beste biak, berriz, Amurrio eta Laudio udalerrien artean.

BI-625eko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
374,9	375,9	2
377,3	378,3	6

Iturria: geuk egina.

Bestalde, BI-625eko IKTak Arabako muga eta Ugao-Miraballes artean daude.

Plataforma

A-625 ETA BI-625 ERREPIDEEN PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-625 (esk.)	0	25	18	57
A-625 (ezk.)	0	8	21	71
BI-625 (esk.)	0	15	33	52
BI-625 (ezk.)	1	31	20	48

Iturria: geuk egina.

Bi errepideetan, 9 metrotik gorako plataforma-zabalerak daude errepidearen %50ean, gutxi gorabehera. Nabarmenezkoa da errepideen luzeraren %8 eta %31 artean 7 metrotik beherako plataforma zabalerak daudela.

Erradioak

A-625 ETA BI-625 ERREPIDEEN KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-625 esk.	46	16	5	8	25
A-625 ezk.	71	9	4	6	10
BI-625 esk.	1	15	8	6	70
BI-625 ezk.	1	9	6	7	77

Iturria: geuk egina.

Arabako errepidearen trazaduran, 85 metrotik beherako kurbadura-erradio ugari daude. BI-625 errepidean, berriz, trazadura zuzenagoa da, eta 350 metrotik gorako erradioen portzentajea %70etik gorakoa da bertan.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-625 ETA BI-625 ERREPIDEETAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
A-625 gorako noranzkoan	31,8	68,2
A-625 beherako noranzkoan	30,9	69,1
BI-625 gorako noranzkoan	22,5	77,5
BI-625 beherako noranzkoan	32,5	67,5

Iturria: geuk egina.

A-625 eta BI-625 errepideek osatutako ibilbidean, ezin da aurreratu bi errepideetako ibilbide-luzeraren %60an baino zati handiagoan, bi noranzkoetan; A-625 errepideari dagokionez, debekuak luzeraren %69an du eragina eta BI-625 errepidean, luzeraren %70ean baino zati handiagoan.

Zeharbideak

A-625 ETA BI-625 ERREPIDEETAKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Saratxo	Amurrio	101	Txikia	Araba
Ugao-Miraballes	Ugao-Miraballes	4.099	Ertaina	Bizkaia
Arrankudiaga	Arrankudiaga	775	Txikia	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Hiru zeharbide daude ibilbide honetan. Horietatik bi Bizkaian daude: Ugao-Miraballes, gatazka-egoera ertainekoa, eta Arrankudiaga, gatazka-egoera txikikoa. Araban, Saratxo, Amurrio udalerrian, gatazka-egoera txikikoa.

Abiadura-jaitsierak

A-625ean ez dago abiadura-jaitsierako bide-zatirik; aldiz, BI-625ean, bide-zati bat dago, 383,9 eta 385,2 KPen artean, hau da, Arrigorriaga udalerraren inguruan.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
383,9	385,2	Ez

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsiera eragiten duen bide-zati horretan ez dago ibilgailu motelen errei gehigarrik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

A-625 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, 370 eta 371,9 KPen arteko bide-zatian izan ezik. BI-625 errepidean ere zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, amaierako bide-zatian izan ezik, hau da, 386,1 eta 387,5 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

A-625 errepidea, Urduñatik Laudiora, Nerbioi ibaiaren goiko aldearen ondotik doa; ingurumen-balio ertaineko Salbada mendilerroaren inguruko gunetik abiatzen da, nolabaiteko ekotono izaera duen gunetik, eta ondoren Urduñako, Saratxoko, Amurrioko, Luxaondoko eta Audioko, Aretako eta Zuloagako bizitegi-guneak zeharkatzen ditu. Audio eta Amurrio artean haranaren hondotik doa, Nerbioi ibaiarekin batera.

BI-625 errepidea Laudiotik jaisten da Nerbioi ibaiaren haranean barna, ibaiaren meandroen bazterretik doa haranaren hondotik. Bizitegi-guneetatik gertu pasatzen da (Arrankudiaga, Ugao-Miraballes), batez ere Arrigorriagatik Galdakaora bitarte; hori da, hain zuzen ere, bere ingurugiro ezaugarri nagusietako bat (hidrologia eta bizitzeko ingurumen-kalitateari dagokionez).

4.6 A-623 ETA BI-623

Bi errepideek batera Vitoria-Gasteiz, Legutianotik, eta Durango arteko ibilbidea egiten dute.


Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

A-623 errepidean neurketa-gune bakarra dago, eta bertan neurtzen den EBBIa eguneko 4.787 ibilgailukoa da; ibilgailu astunena, berriz, 1.515ekoa da, hau da, errepidearen zirkulazio guztiaren %5,9koa.

BI-623 errepidearen EBBIari dagokionez, hona hemen datuak:


BI-623 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

BI-623 errepidean zirkulazio bolumena hazten doa Arabako mugatik (3.700 ibilgailu), Izurtzara arte (8.500 ibilgailutik gora).

BI-623 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, Arabako mugan %6koa da horien proportzioa, bai eta A-623 errepidean ere; Izurtza inguruan, berriz, %17koa da.

A-623ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
4.787	282	5,89%

Iturria: geuk egina.

BI-623ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
6.397	955	14,92%


Iturria: geuk egina.

EBBIaren batez bestekoa handiagoa da Bizkaiko bide-zatian, bai eta ibilgailu astunen portzentajea ere.

Zerbitzu-mailak


Zerbitzu-mailen zatiak jarraian datozen grafikoetan adierazten dira:

A-623 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

BI-623 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

A-623 errepidean zerbitzu-maila C eta D mailen artekoa da; maila horiek errepideak zirkulazio handia bideratzen duela erakusten badute ere, onartzeko modukoak dira oraindik. Alabaina, ezin berdin esan BI-623 errepideari buruz, E zerbitzu-mailakoa baita; hau da, pilaketa-egoeratik gertu egoten da askotan. E maila Arabako mugatik hurbilen dagoen zonan egoten da, Otxandio inguruan eta errepidearen amaierako zatian, Durango aldean.

Segurtasuna

Ibilbide honetan IKT bat dago A-623 errepidean, eta beste bi BI-623 errepidean, honako puntu hauetan, hain zuzen ere.

A-623ko IKTa

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
18,6	19,7	0

Iturria: geuk egina.

BI-623ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
27,8	29,2	10
39,6	40,7	4

Iturria: geuk egina.

A-623ko IKTa Legutiano inguruan dago, baina, 2003an, ez zen biktimak eragindako istripurik egon bertan. BI-623ko IKTak Durango eta Urkiola inguruan daude, eta, 2003an, biktimak eragindako 10 eta 4 istripu gertatu ziren tarte horietan, hurrenez hurren.

Plataforma

A-623 ETA BI-623 ERREPIDEEN PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
A-623	0	88	5	7
BI-623	0	53	26	21

Iturria: geuk egina.

Bi bideetan, errepidearen luzeraren portzentajerik handienez, 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalerak daude; A-623 errepidearen %88k du zabalera hori, eta BI-623ko %53k.

Erradioak

A-623 ETA BI-623 ERREPIDEEN KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
A-623	55	17	4	8	15
BI-623	5	9	3	6	78

Iturria: geuk egina.

A-623ko trazadurak erradio txikiko bihurgune ugari ditu, izan ere, luzeraren %55 85 metrotik beherako erradioa duten bihurguneak dira. BI-623ri dagokionez, neurri horretako erradioa duten bihurguneak luzeraren %5 soilik dira, eta zatirik handienez (%78), 350 metrotik gorako erradioa duten bihurguneak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

A-623 ETA BI-623 ERREPIDEETAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeko aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeko debekua duten tarteen luzera %
A-623 gorako noranzkoan	30,6	69,4
A-623 beherako noranzkoan	23,4	76,6
BI-623 gorako noranzkoan	47,6	52,4
BI-623 beherako noranzkoan	50,1	49,9

Iturria: geuk egina.

A-623 errepidean, berriz, ibilbidearen %60 gainditzen du aurreratze-debekuak: %69, gorako noranzkoan, eta %76 beherakoan. BI-623, errepidean, aldiz, debekuak ibilbidearen %50ean du indarra.

Zeharbideak

A-623 errepidean ez dago zeharbiderik. BI-623 errepidean bi zeharbide daude, gatazka-egoera txikikoak biak ere.

A-623 ETA BI-623 ERREPIDEETAKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Izurtza	Izurtza	263	Txikia	Bizkaia
Mañaria	Mañaria	453	Txikia	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsierak

A-623an ez dago abiadura-jaitsierako bide-zatirik; aldiz, BI-623an, 5 kilometroko bide-zati batean abiadura jaitsi behar da, Urkiolako mendatean, hain zuzen ere.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
34,4	39,9	Ez

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsiera gertatzen den bide-zatian ez dago ibilgailu motelen erreirik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

Bi errepide hauetan zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da, 16,6 eta 48,9 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

A-623k, Otxandiotik Legutianora bitarte, loturako korridore bat zeharkatzen du Otxandioren hegoaldean; ondoren, Urrunaga urtegiaren amaieraren bazterretik doa Legutianora arte (isurketa-arriskua, bazterretako funtzio ekologikoetan eragina).

BI-623 errepidea Durangotik Otxandiora eta Arabako mugara arte Mañaria ibaiaren ondotik doa (Durangotik Mañariara), kaltetua izateko arrisku handia duen akuifero baten gainetik. Ondoren, ingurumen- eta paisaia-balio handia duen espazio bat zeharkatzen du, hain zuzen ere, Urkiola; eta Urkiola errekaaren bazterretik doa (Amaitarminetik amaierara). Urrunaga urtegiaren amaiera aldera, lotura ekologikoko korridore bat zeharkatzen du.


4.7 GI-131

Andoaindik Donostiarako ibilbidea egiten du Hernani zeharkatuz.

GI-131 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:


Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.



GI-131ren EBBIa 10.000 ibilgailukoa da Hernaniko saihebidetan, eta ia 20.000 ibilgailukoa Astigarragan eta Donostia inguruan. Zirkulazioa nahiko homogeneoa da, eta errepidearen amaiera aldera hazi egiten da, Donostiara iristen doan heinean.

GI-131 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Errepide honetako ibilgailu astunen portzentajea %10 ingurukoa da Astigarragan, hau da, EBBIa altuena den puntuan; eta Hernaniko saihebidetan, berriz, EBBIa baxuena den puntuan, %18,5ekoa. Ikus daitekeen bezala, ibilgailu astunen zirkulazioa oso homogeneoa da bide guztian zehar. Izan ere, ibilgailu astunen bolumena 1.900 eta 2.500 ibilgailu artean mantentzen da errepide osoan.

GI-131ko EBBI-aren BATEZ BESTEKO. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
13.220	1.861	14,08%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, GI-131ko EBBIa 13.000 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %14koa.

Zerbitzu-mailak

Errepide hau E zerbitzu-mailakoa da ibilbide osoan; horrek esan nahi du pilaketa-egoeratik gertu egoten dela askotan, eta zirkulazioaren jokaera ez dela egonkorra.

Segurtasuna

Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) bakarra dago, N-I errepidearen loturaren ondoan, Andoain inguruan; 2003an, biktimak eragindako 7 istripu gertatu ziren bertan.

GI-131ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
0,3	1,3	7

Iturria: geuk egina.

Plataforma

GI-131 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m) > luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) < luzera %
GI-131	3	58	25	14

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienez 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalerak daude; izan ere, errepidearen %3an soilik da plataforma-zabalera hori baino txikiagoa.

Erradioak

GI-131 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
GI-131	5	11	6	5	73

Iturria: geuk egina.

GI-131 errepidean trazadura zuzena da zatirik handienez, izan ere, 350 metrotik gorako erradioen portzentajea %73koa da bertan. %16an soilik daude 190 metrotik beherako erradioak, eta %5ean soilik 85 metrotik beherakoak.

Aurreratzeak egiteko aukera

GI-131 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
GI-131 gorako noranzkoan	30,4	69,6
GI-131 beherako noranzkoan	25,3	74,7

Iturria: geuk egina.

GI-131 errepidearen luzeraren %60an baino zati handiagoan debekatuta dago aurreratzea, bi zirkulazio-noranzkoetan; zehazki, gorako noranzkoan ibilbidearen %69ari eragiten dio debekuak, eta, beherako noranzkoan, %75ari.

Zeharbideak

GI-131 errepidean lau zeharbide daude; horietatik hiru gatazka-egoera handikoak dira (Andoain, Urnieta eta Martutene), eta bat gatazka-egoera ertainekoa (Astigarraga).

GI-131 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003 / 1 / 1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Andoain	Andoain	13.886	Handia	Gipuzkoa
Urnieta	Urnieta	5.824	Handia	Gipuzkoa
Martutene	Donostia	2.712	Handia	Gipuzkoa
Astigarraga	Ergobia	3.267	Ertaina	Gipuzkoa

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitzierak

GI-131n ez dago abiadura jaitsi beharreko bide-zatirik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

GI-131 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da, 0 eta 14,3 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

GI-131 aldaketa ugari jasandako ingurune batetik doa Andoain eta Hernani artean, erdi-mailako ezegonkortasun ekologikoa duten puntu batzuetan finkatuta, eta bide-zati batzuk hiri-dentsitate handia duten gunetatik pasatzen dira, hala nola, Andoaindik, Urnietatik eta Hernanitik bertatik. Ondoren Urumea ibaiaren haranetik jaisten da, uholde lautadatik, eta azken zatian hiri-ingurunean sartzen da. Beraz, pertsonen bizitza-kalitatean eragitearekin, uholde-arriskuarekin, eta, punturen batean, ezegonkortasun geologikoarekin du erlazioa bere ingurugiro-profilak.


4.8 GI-631

Zumaia eta Zumarraga udalerriak lotzen ditu; Gipuzkoako barnealdeko ardatz garrantzitsua da, eta tamaina ertaineko zenbait herriri ematen die zerbitzua, hala nola, Azkoitiari, Azpeitiari eta Zestoari.

GI-631 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa


GI-631ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

GI-631ko EBBIa hazten doa A-8 eta Loiolako bidegurutzean, eta puntu horretatik Zumarragara bitarte, berriz, behera egiten du. Baliorik altuena Loiolakoa da: 15.000 ibilgailutik gora, hain zuzen ere. Baxuena, berriz, Azkoitiakoa da: 4.000 ibilgailu baino gutxiago.

GI-631 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, horien portzentajea %11 eta %17 artekoa da errepide osoan, eta bolumenak 700 eta 1.600 ibilgailu artekoak.

GI-631ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOAK. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
7.889	1.112	14,10%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, ia 8.000 ibilgailura iristen da EBBIa, eta ibilgailu astunen portzentajea %14koa da.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

GI-631 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Orokorrean, errepide honetako zerbitzu-maila D eta E artekoa da; mailarik altuenak Loiolakoak eta Agiñetako bidegurutzekoak dira (E zerbitzu-maila), eta baxuenak, berriz, Azkoitiakoak eta Arietako bidegurutzekoak (D zerbitzu-maila).

Segurtasuna

Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) bakarra dago, Zestoa udalerritik gertu; 2003an, biktimak eragindako 2 istripu gertatu ziren bertan.

GI-631ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
0,3	1,3	7

Iturria: geuk egina.

Plataforma

GI-631 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m) >luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) <luzera %
GI-631	0	34	37	29

Iturria: geuk egina.

GI-631 errepidearen %34an 7 metro baino gutxiagoko zabalera du plataformak, eta %29an 9 metrotik gorakoa da.

Erradioak

GI-631 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
GI-631	11	20	10	3	56

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %11n, 85 metrotik beherako kurbadura-erradioak daude, eta beste %20n, 190 metrorik beherakoak. Horrek esan nahi du errepidearen trazadura nahiko bihurtu dela, baina, halere, luzeraren %56an 350 metrotik gorako erradioak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

GI-631 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak egiteko aukera ematen duten tarteetako luzera %	Aurreratzeak egiteko debekua duten tarteetako luzera %
GI-631 gorako noranzkoan	45,6	54,4
GI-631 beherako noranzkoan	36,7	63,3

Iturria: geuk egina.

GI-631 errepidean, berriz, aurreratze-debekuak beherako noranzkoan soilik eragiten dio ibilbide-luzeraren %60ari baino zati handiagoari. Gorako noranzkoan %54ari eragiten dio.

Zeharbideak

GI-631 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Azkoitia	Azkoitia	10.288	Ertaina	Gipuzkoa
Azpeitia	Azpeitia	13.858	Ertaina	Gipuzkoa
Zestoa	Zestoa	3.081	Ertaina	Gipuzkoa
Aizpurutxo	Azkoitia	-	Txikia	Gipuzkoa

Iturria: geuk egina.

GI-131 errepidean lau zeharbide daude; horietatik hiru gatazka-egoera handikoak dira (Azkoitia, Azpeitia eta Zestoa), eta bat gatazka-egoera txikikoa (Aizpurutxo).

Abiadura-jaitsierak

GI-631n ez dago abiadura jaitsi beharreko bide-zatirik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

GI-631 errepidearen ibilbide guztian ere zirkulazioa etena da, hau da, 0 eta 34 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

Zumarragatik Iraetara, errepidea Urola ibaiaren haranaren hondotik doa; haran horrek erdi-mailako balio ekologikoa du. Espazio estu horretan bihurgune ugari eginez doa ibaiaren ondotik, eta eragin handia du horren bazterretan (batez ere, Zumarraga eta Azkoitia artean). Gainera, hiri-guneak zeharkatzen ditu Azkoitian, Azpeitian eta Zestoan, eta garrantzi handiko korridore ekologiko bat zeharkatzen du Zestoaren iparraldean. Ondoren, Iraeta pasata, haranetik irteten da, eta Arroatik aurrera Arrondo errekarari jarraitzen dio, eta horrekin batera gurutzatzen du A-8a eta Arroa Bekora sartzen da.

4.9 GI-638 ETA BI-638


Deba (Gipuzkoa) eta Ondarroa (Bizkaia) udalerrien arteko ibilbidea egiten dute; ibilbidea Euskal Autonomia Erkidegoko erdialdeko kostaldetik doa.

Bi errepideek oinarrizko ibilbide bat osatzen dutenez, batera aztertuko ditugu.

Zirkulazioa

BI-638 errepidean neurketa-gune bakarra dago; bertan jasotako datuen arabera, EBBIa 6.601 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %8koa da. GI-638 errepidean honako bilakaera hau dauka EBBIak.

GI-638ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Orokorrean, EBBIa nahiko homogeneoa da ibilbide osoan, eta 5.200 eta 6.700 ibilgailu artean mantentzen da.

Ibilgailu astunei buruz dagoen datu bakarra BI-638 errepidekoa da; 2003an 528 ibilgailu zenbatu ziren bertan.

GI-638ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
5.855	-	-

Iturria: geuk egina.

BI-638ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
6.601	528	8,0%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, EBBIa 6.000 ibilgailu ingurukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %8koa.

Zerbitzu-mailak

Aztertzen ari garen bi errepideetako ibilbide osoa E zerbitzu-mailakoa da; horrek esan nahi du pilaketa-egoeratik gertu egoten direla errepideok, eta beren funtzionamendua ezegonkorra dela.

Segurtasuna

GI-638 errepidean Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) bakarra dago, 0,1 eta 1,1 KPen artean, zehazki; 2003an, biktimak eragindako istripu bat egon zen bertan.BI-638 errepidean ez dago IKTrik.

GI-638ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
0,1	1,1	1

Iturria: geuk egina.

Plataforma

GI-638 ETA BI-638 ERREPIDEEN PLATAFORMA-ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
GI-638	8	44	43	5
BI-638	0	59	23	18

Iturria: geuk egina.

Bi errepide hauen zatirik handienean 5 eta 9 metro arteko plataforma-zabalerak daude.

Erradioak

GI-638 ETA BI-638 ERREPIDEEN KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
GI-638	15	19	11	4	52
BI-638	14	35	5	10	37

Iturria: geuk egina.

Ibilbide osoan, trazadura bihurgunetsua da, eta 190 metrotik beherako erradioak dituzten bihurgune ugari daude. GI-638n horrelako bihurguneak errepidearen %34 dira; BI-638n, berriz, portzentajea handiagoa da, %49, hain zuzen ere.

Aurreratzeak egiteko aukera

GI-638 ETA BI-638 ERREPIDEETAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
GI-638 gorako noranzkoan	25,9	74,1
GI-638 beherako noranzkoan	27,5	72,5
BI-638 gorako noranzkoan	0,0	100,0
BI-638 beherako noranzkoan	0,0	100,0

Iturria: geuk egina.

GI-638 eta BI-638 errepideetan, aurreratze-debekuak ibilbide-luzeraren %60ari baino zati handiagoari eragiten dio, bi noranzkoetan. GI-638an, debekuak ibilbide-luzeraren %73-74 hartzen du, eta, BI-638an (luzeran kilometro bakarra du), ibilbide guztian zehar ezin da aurreratu.

Zeharbideak

BI-638n ez dago zeharbiderik. GI-638k Mutriku udalerria zeharkatzen du, eta zeharbide hori gatazka-egoera ertainekoa da.

GI-638 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Mutriku	Mutriku	4.769	Ertaina	Gipuzkoa

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsierak

Ez dago abiadura-jaitiera nabarmenik bi errepide hauen ibilbidean.

Zirkulazio-jarraitutasuna

Bi errepide hauetan zirkulazio-etenak daude ibilbide guztian zehar.

Ingurugiro-azterketa

GI-638k paisaia-balio handia du, izan ere Ondarroatik Mutrikura eta Debara mendian barna eta kostaldetik doa. Hiri-guneetan eragina du, hala nola, Ondarroan, Saturraranen, Mutrikun eta Deban. Gune horretako kalitate ekologikoa ertaina da (Saturran eta Mutriku artean, balio ekologiko handia duten Mutrikuko bi itsaslabar ekiditen dira).

Gernikatik Lekeitiora bitarte (Errekalde, Basetxesta, Soloan eta Solartetik), BI-638 eremu misto batetik doa; nekazaritza-izaera du, baina puntu batzuetan hiriko inguruneetatik pasatzen da. Gainera, funtzio ekologiko garrantzitsuak ditu, Gernikako itsasadarreko ingurunetik igarotzen baita hasieran, eta amaieran, berriz, Otoiko mendi eta labarretatik (ingurumen aldetik garrantzi handia duen gunea). Paisaiari dagokionez, trazadura interesgarria da oso.


4.10 BI-604

Bilbotik Asuarako ibilbidea egiten du Enekuritik, Bilbao metropolian.

BI-604 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa


BI-604ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

BI-604 errepidearen EBBIa altua da; Bilbotik gertuen dagoen zatian 30.000 ibilgailutik gorakoa da, eta Asua inguruan behera egiten du 16.000 ibilgailura arte.

BI-604 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen portzentajea %5ekoa da errepide osoan. Bolumenei dagokienez, Bilbao inguruan 2.000 ibilgailu astun zenbatzen dira, eta errepidearen iparraldeko zatian, Asuatik gertu, 800.

BI-604ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
30.140	1.507	5,0%

Iturria: geuk egina.

Batez beste, BI-604ko EBBIa 30.000 ibilgailutik gorakoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %5ekoa.

Zerbitzu-mailak

E zerbitzu-maila dago errepide osoan; horrek esan nahi du errepide honen funtzionamendua ezegonkorra dela, eta auto-pilaketatik gertu dauden egoerak ematen direla egun osoan zehar.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

BI-604 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-604 esk.	4	12	28	56
BI-604 ezk.	13	6	15	67

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handiengan plataforma 9 metrotik gorakoa da; halere, portzentaje handi batean, 7 eta 9 metro arteko plataforma-zabalerak daude. 7 metrotik beherako plataformen portzentajea %16 eta %19 artekoa da.

Erradioak

BI-604 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-604 esk.	4	8	8	22	59
BI-604 ezk.	5	9	15	8	63

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handiengan 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak daude, eta %30ean edo, 190 eta 350 metro artekoak. Erradio txikiagoak daude errepidearen %12an.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-604 ERREPIDEAN AUERRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
BI-604 gorako noranzkoan	85,8	14,2
BI-604 beherako noranzkoan	53,6	46,4

Iturria: geuk egina.

BI-604 errepidean aurreratze-debekuak ez du ibilbide-luzeraren %60 gainditzen; gorako noranzkoan, luzeraren %14an ezin da aurreratu eta, beherako noranzkoan, %46an (goranzkoan baino ehuneko askoz ere handiagoa).

Zeharbideak

BI-604 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Asua	Erandio	385	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Errepide honetan Asuako zeharbidea dago soilik, eta gatazka-egoera ertainekoa da.

Abiadura-jaitsierak

BI-604an abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Deustuko irteeran.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Haiserako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
4,0	4,3	Bai

Iturria: geuk egina.

Bide-zati horretan badago ibilgailu motelen erreia.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-604 errepidean zirkulazioa etena da 6,6 eta 7,4 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

Bilbao eta Erandio artean hiri-izaera nabarmena du, eta eragina du bizi-kalitatean.

4.11 BI-624

Altube eta Balmaseda lotzen ditu Bizkaiko bide-zatian.

BI-624 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Errepide honi buruz daukagun datu bakarraren arabera, bertako EBBIa eguneko 3.400 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %6,5ekoa, hau da, eguneko 221 ibilgailu astun.

BI-624ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
3.400	221	6,5%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan D zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

BI-624 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-624	6	62	26	5

Iturria: geuk egina.

Errepide honen zatirik handiengan 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalerak daude.

Erradioak

BI-624 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-624	15	18	13	13	41

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %33an 190 metrotik beherako kurbadura-erradioak daude; %41ean, berriz, 350 metrotik gorakoak dira.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-624 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
BI-624 gorako noranzkoan	42,1	57,9
BI-624 beherako noranzkoan	44,1	55,9

Iturria: geuk egina.

Aurreratu ezin den bide-zatia %60 baino txikiagoa da BI-624 errepideko bi noranzkoetan; zehazki, gorako bidean, %58ra iristen da debeku hori, eta, beherakoan, %56ra.

Zeharbideak

BI-624 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Balmaseda	Balmaseda	7.043	Txikia	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

BI-624 errepidean, Balmasedakoa da zeharbide bakarra, eta gatazka-egoera txikikoa da.

Abiadura-jaitsierak

BI-624 errepidean abiadura nabarmen jaitsi behar den bide-zati bakarra dago, 64,9 eta 65,7 KPen artean, Peñueco herritik gertu.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
64,9	65,7	Ez

Iturria: geuk egina.

Abiadura-jaitsiera eragiten duen bide-zati horretan ez dago ibilgailu motelen erreia gehigarrik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-624 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar, hau da, 64 eta 67 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

Burgosko mugaren ondoan dagoen errepide labur hau kalitate ekologikoa duen guneko batetik doa -gune hori Villasana de Menako mendien ekotono eremua baita-, eta ondoren Kadaguaren haranean sartzen da.

4.12 BI-630


Balmasedatik Karrantzarako ibilbidea egiten du, Kantabriako mugaraino. Errepide-sare nagusiari dagokionez, EAEko errepideen artean mendebaldean dagoen errepidea da.

BI-630 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.


BI-630eko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

BI-630 errepideko EBBIa ez da asko aldatzen neurketa-gune batetik bestera. Puntu horiek guztiek eguneko 1.900-2.300 ibilgailu zenbatzen dituzte.

BI-630 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen EBBIaren gorabeherak EBBI orokorrarentzat deskribatu ditugunen antzekoak dira. Ibilgailu astunen portzentajea %7 eta %10 artekoa da, hau da, eguneko 160-210 ibilgailu astun.

BI-630ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
2.106	178	8,5%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoko zerbitzu-maila B da; funtzionamendu bikaina duela esan nahi du horrek.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

BI-630 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m) > luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m) < luzera %
BI-630	0	77	22	1

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienez 5 eta 7 metro arteko plataforma-zabalerak daude, eta errepide osoan ez dago hori baino metro gutxiagoko zabaleraren duen zatirik.

Erradioak

BI-630 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-630	13	19	5	7	56

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %32an 190 metrotik beherakoa kurbadura-erradioak daude, eta %13an 85 metrotik beherakoak. Bestalde, errepidearen %56an 350 metrotik gorako erradioak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-630 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
BI-630 gorako noranzkoan	31,4	68,6
BI-630 beherako noranzkoan	30,5	69,5

Iturria: geuk egina.

BI-630 errepidearen luzeraren %60an baino zati handiagoan, debekatuta dago aurreratzea, bi zirkulazio-noranzkoetan; gutxi gorabehera, ibilbidearen %69an eragiten du debeku horrek.

Zeharbideak

BI-630 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Balmaseda	Balmaseda	7.043	Txikia	Bizkaia
Traslaviña	Artzetales	277	Txikia	Bizkaia
Herboso	Karrantza Harana	26	Txikia	Bizkaia
Artzetales	Artzetales	666	Txikia	Bizkaia
El Callejo	Karrantza Harana	93	Txikia	Bizkaia
Ambasaguas	Karrantza Harana	513	Txikia	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

BI-630 errepidean sei zeharbide daude, baina guztiak gatazka-egoera txikikoak dira.

Abiadura-jaitzierak

BI-630 errepidean, halaber, abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Herboso udalerriaren inguruan.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
35,2	40,0	Ez

Iturria: geuk egina.

Bide-zati horretan ez dago ibilgailu motelen erreia gehigarriak.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-630 errepidean, zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar.

Ingurugiro-azterketa

Errepide luze hau La Herreriatik Balmasedaren iparraldera doa, Kolitzaren harana, Agüerarena, zeharkatzen du ondoren, eta La Escritako mendatea pasa ondoren Karrantza Haranera sartzen da. Erdi-mailako nekazaritza izaera duen lurralde bat da, badago herriren bat bertan, eta Kantabriatik gertuen dagoen azkeneko zatiak garrantzi ekologiko handiagoa du (ingurumen-interes handiko gunea: Ranero – Armañon – Los Jorrios).

4.13 BI-631


Bilbotik Bermeo kostako udalerrirako ibilbidea egiten du. Ibilbidearen puntu batean Mungia zeharkatzen du; bertara arte, errepidea autobia da.

Errepide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

N-637ren bidegurutzearen hegoaldeko bide-zatian jarritako neurketa-guneetan 30.000 ibilgailutik gora zenbatzen dira; eta Mungia udalerritik gertuen dagoen neurketa-gune egonkorrak, berriz, 27.000 ibilgailu zenbatzen ditu. Puntu horretatik Bermeora arte, EBBIak nabarmen egiten du behera, eta eguneko 10.000 ibilgailura arte jaisten da.


BI-631 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen bolumenei dagokienez, 800 eta 1.600 artekoak izaten dira. BI-631k eta N-633k bat egiten duten bide-zatian (N-637ren bidegurutzearen eta aireporturako saihezbidearen artean autobia dena) bigarren-mailako neurketa-gune bat dago; bertan, nabarmen jaisten da ibilgailu astunen kopurua, 310 ibilgailura arte, hain zuzen ere.

BI-631 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunei dagokienez, Bilbao inguruan %2koa da horien proportzioa, eta Mungia inguruan, berriz, %7koa da.

BI-631ko EBBI-aren BATEZ BESTEKO. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
14.416	714	4,95%


Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

5 eta 9 KPen arteko bide-zatian, eta Bilbao metropoliaren barnean, errepidearen zerbitzu-maila E da.Gainerako zatietan maila hobeak daude, A eta C artekoak.

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

BI-631 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA



Iturria: geuk egina.

Segurtasuna

IKT bat dago 28,5 KPan, eta biktimak eragindako 7 istripu egon ziren bertan 2003an.

BI-631ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
28,5	29,9	7

Iturria: geuk egina.

Plataforma

BI-631 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-631 esk.	0	6	37	58
BI-631 ezk.	0	19	53	28

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienean 7 metrotik gorako plataformak daude; bestalde, ia %20an daude 7 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak.

Erradioak

BI-631 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-631 esk.	0	3	3	8	86
BI-631 ezk.	8	11	5	10	67

Iturria: geuk egina.

Errepidearen zatirik handienean 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak badaude ere, %21ean 190 metrotik beherako erradioak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-631 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
BI-631 gorako noranzkoan	56,6	43,4
BI-631 beherako noranzkoan	45,5	54,5

Iturria: geuk egina.

BI-631 errepidean, berriz, aurreratze-debekuak ibilbidearen %60an baino zati txikiagoan eragiten du: %43an, gorako noranzkoan, eta %54an beherakoan.

Zeharbideak

BI-631 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Larrauri	Mungia	299	Txikia	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

BI-631ko zeharbide bakarra Larraurikoa da, eta gatazka-egoera txikikoa da.

Abiadura-jaitsierak

BI-631n etenak daude honako bide-zati hauetan:

- √ KP: 3,8 – 6; Bilbao eta Begoña artean.
- √ KP: 13,2 – 13,4; San Isidroren iparraldean.
- √ KP: 20,4 – 21,4; Mungia eta Larrauri artean.
- √ KP: 24,6 – 27,4, Sollubeko mendatean.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
3,8	6,1	Bai (ez bide-luzera guztian)
13,2	13,4	Ez
20,4	21,4	Ez
24,6	27,4	Ez

Iturria: geuk egina.

Lehenengo bide-zatiak soilik du errei gehigarria, baina ez luzera osoan, zati batean baizik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-631 errepidean zirkulazioa etena da honako bide-zati hauetan: 5,3 eta 9,3 KPen artean, eta 19,6 eta 35,4 KPen artean.

Ingurugiro-azterketa

Bermeotik Deriora, BI-631k trazadura konplexua du, eta ibilbidearen zatirik handienean asko estimatzen diren paisaietan barrena doa. Mungiako eta Zabalandoko bizitegi-guneen ondotik pasatzen da.

4.14 BI-633


Durangotik Ondarroarako ibilbidea egiten du Trabakua zeharkatuz.

BI-633 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.


BI-633ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

BI-633ko EBBIak bilakaera homogeneoa du; errepide osoan zehar, 5.000 eta 11.000 ibilgailu artekoa da. Balio altuenak Matiena eta Ormaiztegi artekoak dira (10.000 ibilgailutik gora), bai eta Markina ingurukoak ere (9.000). Bestalde, balio baxuenak Markinako saihesbidekoak dira (5.821 ibilgailu).

BI-633 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Errepidearen gainerako zatietan ibilgailu astunen EBBIaren gorabeherak EBBI orokorrarentzat deskribatu ditugun antzekoak dira, baina aldaketak txikiagoak dira. Errepide honetan ibilgailu astunen portzentajea %8 eta %12 artekoa da beti, hau da, eguneko 450 eta 1.000 ibilgailu artean.

BI-633ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOAK. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
7.515	711	9,46%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, BI-633ko EBBIa 7.500 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea ia %10ekoa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, honako hauek dira:

BI-633 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

BI-633ko zerbitzu-maila D eta E artekoa da; batez ere E mailakoa, hau da, zirkulazio motela eta pilaketa-egoeratik gertu dauden egoerak egun osoan zehar.

Segurtasuna

Bi Istripuen Kontzentrazio Tarte (IKT) daude BI-633n, eta honako KP hauetan daude:

BI-633ko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
32,0	33,0	3
42,8	43,8	1
51	52,0	4

Iturria: geuk egina.

Plataforma

BI-633 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-633	0	20	4	76

Iturria: geuk egina.

BI-633 errepidearen zatirik handienean 9 metro baino gehiagoko plataforma-zabalerak daude; halere, %20an 5 eta 7 metro artekoak dira.

Erradioak

BI-633 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-633	3	11	7	9	70

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %70ean 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak daude; alabaina, %14an 190 metrotik beherako erradioak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-633 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteetan luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteetan luzera %
BI-633 gorako noranzkoan	40,9	59,1
BI-633 beherako noranzkoan	35,3	64,7

Iturria: geuk egina.

BI-633 errepidearen beherako noranzkoan, debekatuta dago aurreratzeak egitea ibilbide-luzeraren %60an baino zati handiagoan (%64,7), eta gorako noranzkoan, berriz, debekua ehuneko horretatik oso hurbil dago (%59,1).

Zeharbideak

BI-633 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Berriatua	Berriatua	1.023	Ertaina	Bizkaia
Ondarroa	Ondarroa	9.761	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Errepide honetako bi zeharbideak, Berriatua eta Ondarroa, gatazka-egoera ertainekoak dira.

Abiadura-jaitsierak

BI-633 errepidean, honako bide-zati hauetan jaitsi behar da abiadura:

√ KP: 33,05 – 33,75; San Lorenzo udalerrriaren inguruan.

√ KP: 34,15 – 34,45; aurrekoaren jarraian dagoen bide-zatia.

√ KP: 35,5 – 37,05; Osmen udalerrriaren inguruan.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
33,1	33,8	Bai
34,2	34,5	Bai
35,6	37,1	Bai

Iturria: geuk egina.

Bide-zati horiek guztiek dute ibilgailu motelen erreia gehigarria.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-633 errepidean zirkulazioa etena da ibilbide guztian.

Ingurugiro-azterketa

Gerediaga ondoren (Durangoren ekialdea), Berriz, Osma eta Goitanatik pasatzen da, beraz, hiri-erabilera nagusitzen da. Trabakuako mendatea zeharkatu ondoren, Artibai ibaiaren haranean sartzen da errepidea; gune hori kalitate ekologiko handikoa da (GKL izendatua). Markina-Xemein eta Ondarroako bizitegi-guneak ere zeharkatzen ditu. Trabakuatik aurrerako bide-zati osoaren paisaia kalitateaz gainera, eta ibaiaren garrantzi ekologikoaz gainera, Urberuaga eta Amalloa artean garrantzi handiko korridore ekologikoa zeharkatzen du.

4.15 BI-635


Gernika herria A-8rekin eta N-240rekin lotzen du.

Errepide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian, errepide honetan 2003an jasotako EBBIak azaltzen dira:

BI-635 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA




Iturria: geuk egina.

Lemoatik iparralderantz, errepide honetako EBBIak gora egiten du, eta punturik altuenera iristen da Gernika inguruan.

Batez besteko EBBI haztatua eguneko 13.486 ibilgailukoa da.

BI-635 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen EBBiak antzeko jokaera du; eguneko 1.200 eta 1.700 arteko balioetan mantentzen da, eta gora egiten du pixka bat Gernika inguruan. Portzentajerik altuena Lemoa eta Amorebieta artekoa da, %20 hain zuzen ere; errepidearen gainerako zatietan %10ekoa da.

BI-635eko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
12.015	1.451	12,08%

Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-mailak

Errepide osoan E zerbitzu-maila dago.

Segurtasuna

BI-635eko IKTak

HASIERAKO KP	AMAIERAKO KP	2003ko istripuak
23,4	24,4	8
24,5	25,5	4
25,9	27,0	10
27,5	28,5	4

Iturria: geuk egina.

Errepide honetan lau IKT daude, guztiak ere Amorebieta eta Zugastieta artean.

Plataforma

BI-635 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-635	0	2	21	77

Iturria: geuk egina.

Ia errepide osoan plataformaren zabalera 7 metrotik gorakoa da.

Erradioak

BI-635 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-635	5	17	5	6	67

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %67an 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak daude; alabaina, %22an 190 metrotik beherako erradioak daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-635 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeako aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeako debekua duten tarteen luzera %
BI-635 gorako noranzkoan	26,7	73,3
BI-635 beherako noranzkoan	23,9	76,1

Iturria: geuk egina.

BI-635 errepidean aurreratze-debekuak ibilbidearen %60 gainditzen du; zehazki, ibilbide-luzeraren %73an eragiten du gorako noranzkoan, eta %76an beherakoan.

Zeharbideak

BI-635 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerrria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Astelarra	Astelarra	-	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Errepide honetan Astelarrako zeharbidea dago soilik, eta gatazka-egoera ertainekoa da.

Abiadura-jaitzierak

BI-635 errepidean, abiadura bi bide-zatitan jaitsi behar da; biak ere Amorebieta inguruan.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELEN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
23,4	24,1	Ez
24,8	25,3	Ez

Iturria: geuk egina.

Ez dago ibilgailu motelen erreirik bi bide-zati horietan.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-635 errepidean, zirkulazioa etena da ibilbide guztian zehar.

Ingurugiro-azterketa

BI-635, Gernikatik Amorebietara, Gernikako itsasadarrera doan Oka ibaiaren ondotik doa (biosfera-erreserba) Autzaganeko mendatera arte; bertan, loturako korridore ekologiko bat zeharkatzen du Gainera, Gernikako bizitegi-guneen ondotik pasatzen da.

4.16 BI-636


BI-636 errepideak Bilbao Burgosko mugarekin lotzen du, bai eta Balmaseda herriarekin ere.

Ibilbide horren egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Aztertzen ari garen errepide-zatiko EBBIaren gorabeherak aztertzen dira jarraian datorren grafikoan, eta, gainera, datu horiek jaso dituen neurketa-gunearen KPa adierazten da.


BI-636 ERREPIDEKO EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Errepide honetako EBBIa 27.000 ibilgailukoa da Bilbao inguruan; ondoren, behera egiten du, eta Lanestosa inguruan 5.000 ibilgailu baino gehixeagokoa da.

BI-636 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunek ere antzeko joera dute; bolumen handienak Bilbao ingurukoak dira, bai portzentajeei dagokienez, bai eta balio absolutuei dagokienez ere.

BI-636ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOA. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
14.062	1.050	7,47%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, EBBIa 14.000 ibilgailutik gorakoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %7,5ekoa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

BI-636 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Zerbitzu-maila B eta C artekoa da errepide osoan.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago IKTri.

Plataforma

BI-636 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-636	1	18	12	70

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %70ean 9 metrotik gorako plataforma-zabalerak daude; eta %1an bakarrik daude 5 metro baino gutxiagoko plataforma-zabalerak.

Erradioak

BI-636 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-636	1	4	6	8	81

Iturria: geuk egina.

Errepidearen %81ean 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak daude; eta %5ean soilik daude 190 metrotik beherako erradioak.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-636 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tarteen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tarteen luzera %
BI-636 gorako noranzkoan	34,6	65,4
BI-636 beherako noranzkoan	36,0	64,0

Iturria: geuk egina.

BI-636 errepidean, aurreratze-debekuak ibilbide-luzeraren %60 gainditzen du; gorako noranzkoan, luzeraren %65ean ezin da aurreratu, eta beherako noranzkoan, %64an.

Zeharbideak

BI-636 ERREPIDEKO ZEHARBIDEAK

Herrigunea	Udalerria	Biztanle-kopurua (2003/1/1)	Gatazka-egoera	Lurralde historikoa
Alonsotegi	Alonsotegi	2.658	Ertaina	Bizkaia
Quadra (La)	Güeñes	265	Ertaina	Bizkaia

Iturria: geuk egina.

Errepideak bi zeharbide dauzka, Alonsotegikoa eta Güeñeskoa, biak ere gatazka-egoera ertainekoak.

Abiadura-jaitsierak

BI-636an, abiadura jaitsi beharreko bide-zati bakarra dago, Balmaseda eta Burgosko mugaren artean.

ABIADURA-JAITSIERA ETA IBILGAILU MOTELN ERREIAK DITUZTEN BIDE-ZATIAK

Hasierako KP	Amaierako KP	Errei gehigarria
33,1	33,7	Ez

Iturria: geuk egina.

Bide-zati horretan ez dago ibilgailu motelen erreirik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-636 errepidearen ibilbide guztian ere zirkulazioa etena da.

Ingurugiro-azterketa

BI-636, Basurtotik (Bilbao) Peñuecora (Burgosko muga), Kadagua ibaiaren ondotik doa ibilbide horretan guztian; Sodupe eta Güeñes artean urruntzen da ibai-bazterretik. Sodupetik iparraldera lotura ekologikoko korridore bat zeharkatzen du Gabeko mediaren eta iparrekialdearen artean.

4.17 BI-637


Artaza eta Sopelana arteko ibilbidea egiten du. Hiriko ezaugarriak dituen autobia hori Bilbon sortzen da, eta kostarantz egiten du; bitartean, Leioa, Algorta, Erandio eta Artatza inguruak zeharkatzen ditu.

BI-637 errepidearen egitura- eta funtzio-ezaugarri nagusiak honako hauek dira:

Zirkulazioa

Jarraian datorren grafikoan errepide honetako EBBIaren bilakaera ikus daiteke.


BI-637ko EBBI-aren BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Bilbao metropoliaren inguruko errepideetan ohikoa den bezala, BI-637 errepideak zirkulazio-bolumen handia dauka: Erandio inguruan eguneko 100.000 ibilgailutik gorakoa da. Bilboko inguruetatik urrutiratzen den heinean, behera egiten du EBBIak, eta Berango inguruan 35.000 ibilgailukoa da.

BI-637 ERREPIDEKO IBILGAILU ASTUNEN ZIRKULAZIOAREN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Ibilgailu astunen EBBIaren gorabeherak EBBI orokorrarentzat deskribatu ditugunen antzekoak dira. Ibilgailu astunen portzentajea %3 eta %6 artekoa da errepide osoan. Zenbaki absolutuak aztertuz, errepide horretako ibilgailu astunen kopurua 6.000 ibilgailukoa da Bilbao inguruan, eta 2.000koa Berango inguruan.

BI-637ko EBBI-aren BATEZ BESTEKOAK. 2003. URTEA

EBBI	IBILGAILU ASTUNAK	IBILGAILU ASTUNEN %
72.643	3.760	5,18%


Iturria: geuk egina.

Batez beste, BI-637ko EBBIa 72.000 ibilgailukoa da, eta ibilgailu astunen portzentajea %5,2koa.

Zerbitzu-mailak

Zerbitzu-mailen zatiak, KPen gorako noranzkoan, jarraian datorren grafikoan adierazten dira:

BI-637 ERREPIDEKO ZERBITZU-MAILEN BILAKAERA. 2003. URTEA



Iturria: geuk egina.

Bilbao metropolitik gertuen dauden bide-zatietan, zerbitzu-maila D (Erandio, Santimami eta Leioa) eta C (Leioa-Artatza, Gobela-Bolue, Artatza-Bolue) artekoa da. Azkeneko bide-zatian (Artatza-Kurtxes), zerbitzu-maila oso ona da, A eta B artekoa.

Segurtasuna

Errepide honetan ez dago Istripuen Kontzentrazio Tarterik (IKT).

Plataforma

BI-637 ERREPIDEKO PLATAFORMAREN ZABALERAK

Errepidea	5 (m)>luzera %	5-7 (m) luzera %	7-9 (m) luzera %	9 (m)<luzera %
BI-637 esk.	0	0	24	76
BI-637 ezk.	0	0	27	73

Iturria: geuk egina.

Plataforma-zabalera 7 metrotik gorakoa da errepide osoan, eta zatirik handienean 9 metrotik gorakoa da.

Erradioak

BI-637 ERREPIDEKO KURBADURA-ERRADIOAK

Errepidea	85 (m) > luzera %	85-190 (m) luzera %	190-250 (m) luzera %	250-350 (m) luzera %	350 (m) < luzera %
BI-637 esk.	1	3	3	8	85
BI-637 ezk.	1	2	2	10	86

Iturria: geuk egina.

Era berean, 350 metrotik gorako kurbadura-erradioak dira nagusi; erradio txikiagoa duten bihurgune gutxi daude.

Aurreratzeak egiteko aukera

BI-637 ERREPIDEAN AURRERATZEAK EGITEKO AUKERA

Errepidea	Aurreratzeak aukera ematen duten tartearen luzera %	Aurreratzeak debekua duten tartearen luzera %
BI-637 gorako noranzkoan	87,3	12,7
BI-637 beherako noranzkoan	87,3	12,7

Iturria: geuk egina.

BI-637 errepideari dagokionez, luzeraren %12,7an soilik dago debekatuta aurreratzea, bi noranzkoetan.

Zeharbideak

BI-637k ez dauka zeharbiderik ibilbide osoan.

Abiadura-jaitsierak

BI-637n ez dago abiadura jaitsi beharreko bide-zatirik.

Zirkulazio-jarraitutasuna

BI-637 errepidean zirkulazioa etena da 17,24 eta 18,38 KPen arteko bide zatian.

Ingurugiro-azterketa

Errepide honek, Areetatik Getxo eta Sopelanara, hiri-inguruneak zeharkatzen ditu, eta era horretako ingurugiro-profila dauka.

5. EAEko METROPOLI-AREETAKO EGUNGO EGOERAREN AZTERKETA

5.1 BILBOKO METROPOLI-AREA

5.1.1 Zeharkako sekzioa

Bilbao metropoliaren inguruan dauden errepide gehienek plataforma zabala dute. Adibidez, A-8 autobideak, 113 eta 140 KPen artean, 4-6 errei dauzka. N-637k 4 errei ditu zatirik handienean (noranzko bakoitzerako bi errei), eta bide-zati batzuetan 8 errei ere baditu (noranzko bakoitzerako 4). Era berean, BI-604 errepideak, eremu honetan dituen 5 kilometroetan, noranzko bakoitzerako daukan errei-kopurua aldatu egiten da etengabe, errei bat eta hiru errei artean. Errepide guztietan, konurbaziorako sarrera eta irteera ugari daudelako aldatzen da horrenbeste errei-kopurua.

5.1.2 Istripuen Kontzentrazio Tarteak

Istripu-tasa altua duten bide-zatiak dira Istripuen Kontzentrazio Tarteak. Hori kalkulatzeko ez dira 1999-2003 denbora-tartean gertatutako biktimak eragindako istripuak soilik kontuan hartzen, aitzitik, zirkulazioaren bilakaera ere aintzat hartzen da.

Bilbao metropolian hamaika IKT hauteman dira, eta jarraian datorren planoan azaltzen dira horiek. Horietako bi Santurtziko portura sartzeko errepidean (N-639) daude. Beste bi A-8 autobidean, 121 eta 123 KPen artean (N-634 errepidearen loturatik gertu, Gurutzetako loturan), eta 113 eta 115 KPen artean (AP-68 ordainpeko autobidearen elkargunea baino lehenago). Eta, azkenik, gainerako zazpi IKTak N-634 errepidean daude, El Casal eta Nosedal artean, Ortuella zeharbidean, eta 98 eta 106 KPen artean; azkeneko IKT horietako batzuk Basauriko zeharbidean daude.

BILBAO METROPOLIKO IKTen KOKAPENA



5.1.3 Zirkulazio-intentsitatea

EAEko hiru hiriburuen inguruak aztertuz gero, ikus daiteke Bilbao metropolian daudela EBBI balio altuenak, metropolia inguratzen duten errepide gehienek eguneko 100.000 ibilgailutik gorako EBBIa baitute. Adibidez, A-8 autobidean, metropoli-inguruetik pasatzen den bide-zatian, Kastrexanako loturan, zehazki, eguneko 130.000 ibilgailu baino gehiago zenbatzen dira. N-637 errepideko Errontegi korridorean ere zirkulazioa handia da, eguneko 115.000 ibilgailu baino gehiagokoa. Errepide-sare nagusiko BI-637 errepideko EBBIa, gunen honetan, Kukularrako loturan, 100.000 ibilgailutik gorako da. Eta, azkenik, N-634 errepideko EBBIa (A-8ren paraleloan doa), 2003an, eguneko 45.000 ibilgailutik gorakoa izan zen Ibarsusi eta Urgoiti (El Gallo) artean.

5.1.4 Zerbitzu-mailak

Bilbao metropolian daude EAE osoko zerbitzu-maila baxuenak. Lehentasuneko sareari dagokionez, honako hauek dira gelditze-egoeran egoten diren errepideak (F zerbitzu-maila):

√ N-637 errepideko Errontegiko korridorea; bide-zati hori errepidearen luzeraren %13koa da.

√ A-8 errepidea, Sabino Aranako eta Sestaoko loturen artean (8 kilometro).

Aurrekoekin batera, E zerbitzu-mailako bide-zati ugari daude, pilaketa-egoeratik gertu egoten direnak, eta honako errepide hauetan daude horiek:

√ BI-604, 2,3 eta 7,4 KPen artean, Deusto eta Bilbao artean.

√ BI-625, 381 eta 387 KPen artean, AP-68ren eta A-8ren loturen artean.

√ BI-631, 5 eta 9 KPen artean, Begoña eta N-637ren loturaren artean.

√ N-639 errepidean, ia ibilbide osoan.

√ N-634, 113 eta 126 KPen artean, Bilboko ibaiaren ezkerralde osoan.

5.1.5 Plataforma eta erradio kritikoak

Honako errepide eta bide-zati hauek maila kritikotik beherako plataforma-zabalerak dauzkate.

√ N-634, Bilbao metropolitik pasatzen den bide-zatian, ia ibilbide osoan, 96,7 eta 136,2 KPen artean.

√ N-639, 15,7 eta 23,1 KPen artean, portua eta A-8ren bidegurutzearen artean.

√ BI-604, 2,7 eta 7,4 KPen artean, Deusto eta Bilbao artean.

√ BI-625, 380 eta 396 KPen artean, Bilbao inguruan.

√ BI-631, 0 eta 5 KPen artean, Begoña eta N-637ren loturaren artean.

Kurbadura-erradioei dagokienez, maila kritikotik behera daude metropoli-areako errepide batzuetako bide-zati jakin batzuk. Nabarmentzekoak dira, adibidez, honako hauek: N-634, maila kritikotik beherako erradioak dituzten bihurguneak ditu ibilbidearen zati handi batean (99, 102, 108, 114, 116, 117 KPak, eta 119tik 134rako KPak); eta N-639, esan bezalako bihurguneak dauzka ibilbide osoan. Honako hauek ere aipa daitezke:

√ BI-631, 0 – 1,3, 3,3 – 3,5 eta 5,7 – 6,9 KPetan, Bilboko irteerako bide-zatian.

√ N-644, 131,7 eta 132,3 KPen artean, portu-gunerako sarreratik gertu.

√ BI-604, 2,7 – 3,4 eta 4,6 – 7,4 KPetan, Deusto eta N-637ren bidegurutzearen artean.

5.2 DONOSTIA-SAN SEBASTIANEKO METROPOLI-AREA:

5.2.1 Zeharkako sekzioa

Donostia inguruan, A-8 autobideak 2 erreiri ditu noranzko bakoitzerako; halere, bide-zati batzuetan, 3 erreiri daude noranzko bakoitzerako, gehienetan, hiriko sarrerek eta irteerak direla eta.

5.2.2 Istripuen Kontzentrazio Tarteak

Donostian, 2003 urtean, Bilbon baino askoz ere IKT gutxiago zeuden; izan ere, dagokion atalean definitutako irizpideei jarraiki, bi IKT soilik hauteman ziren: bata A-8 autobidean, 20 eta 22 KPen artean; eta bestea, berriz, N-I errepidean, Pasaia San Pedro herritik pasatzen den bide-zatian.

5.2.3 Zirkulazio-intentsitatea

Donostiako saihesbidean, A-8 autobideko EBBi balioak eguneko 100.000 ibilgailutik gorakoak dira; nahiz eta balio altuak izan, ez dituzte Bilbao ingurukoak gainditzen.

2003ko ibilgailu astunen zirkulazioari dagokionez, zirkulazio-maila altuenak (eguneko 10.000 eta 20.000 ibilgailu astun artean) A-8 autobidean hautematen dira, Donostiatik pasatzen den bide-zatian, hain zuzen ere.

5.2.4 Zerbitzu-mailak

Donostian honako bide-zati hauetan soilik dago F zerbitzu-maila: A-8n, 22 eta 23 KPen artean, Donostiako ingurabidera iritsi baino lehenago; eta N-Ien, Lasarte herriaren parean, 447 eta 453 KPen artean.

Bestalde, E zerbitzu-mailako bide-zatiak dira:

√ GI-631, ibilbide osoan.

√ N-I, Pasaiatik eta Errenteriatik Irun arte, 466 eta 481 KPen artean.

√ N-634, errepide-hasieratik Añorgako loturara arte, Donostiako metropoli-areatik irten arte.

5.2.5 Plataforma eta erradio kritikoak

Honako bide-zati hauek maila kritikotik beherako plataforma-zabalerak dauzkate:

√ N-I, Pasaia eta Errenteria eta Irun artean, 466 eta 480 KPen artean.

√ GI-131 errepidean, ia ibilbide osoan.

Erradioei dagokienez, honako bide-zati hauek daude maila kritikoaren azpitik:

√ N-634, maila kritikotik beherako erradioak dituzten bihurguneak ditu Gipuzkoako ibilbide guzitan.

√ GI-131, ibilbide osoan, baita ere; erradio txikiko bihurguneak ditu 100 – 200 metroko.

5.3 VITORIA-GASTEIZKO METROPOLI-AREA

5.3.1 Zeharkako sekzioa

Gasteizen, hiriburua inguratzen duen N-I errepideak 6 erreiko bide-zati bat dauka (5 bat kilometrokoa).

Gainerako zatian (luzeraren %84) 2 errei dauzka noranzko bakoitzerako.

5.3.2 Istripuen Kontzentrazio Tarteak

Gasteiz inguruan, IKT bakarra hautematen da era erradialean Arabako hiriburura iristen diren errepideen artean: zehazki, A-132 errepidean dago, Andollu eta Argandoña hiriguneen artean.

5.3.3 Zirkulazio-intentsitatea

Arabako hiriburuaren ingurunean, N-I errepideak (Madrildik Irunera) dauka zirkulazio-maila handiena. Vitoria-Gasteizko ingurabidean, 2003 urtean, EBBIa eguneko 22.000 eta 37.000 ibilgailu artekoa izan zen.

Ibilgailu astunei dagokienez, 2003an, zirkulazio-maila altuenak (eguneko 10.000 - 20.000 ibilgailu astun) N-I errepidean (Madril – Irun) hauteman ziren baita ere, Vitoria-Gasteizko ingurabidean.

5.3.4 Zerbitzu-mailak

Gasteizen, zirkulazio-baldintzak oso onak dira beste metropoli-area batzuekin konparatuz gero; izan ere, ez dago F zerbitzu-mailako bide-zatirik Vitoria-Gasteiz inguruan.

Bestalde, E zerbitzu-mailako errepide bakarra dago: N-104, ia ibilbide osoan.

5.3.5 Plataforma eta erradio kritikoak

Gasteizko metropoli-arean ez dago maila kritikotik beharako plataforma-zabalera duen errepiderik.

Erradioei dagokienez, maila kritikotik beherako bide-zati bakarra dago: A-132 errepideko 200 metroko bide-zatia, 2,9 eta 3,1 KPen artean.